BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2535

EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 15ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinen bidez argitaratzen baita eskaintza-prestakuntzaren arloko 2013ko diru-laguntzetarako deialdia, enplegurako lanbide-heziketaren azpi-sistemaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei lehentasunez zuzendutako prestakuntza-jarduerak burutzeko. Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluaren Erabaki bidez onartu da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 13ko bileran hartutako erabakiaren bidez eskaintza-prestakuntzaren arloko 2013ko diru-laguntzen deialdia onartu du, enplegurako lanbide-heziketaren azpi-sistemaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei lehentasunez zuzendutako prestakuntza-jarduerak burutzeko. Lanbideren Estatutuetako 10.2 artikuluaren p) idatzi-zatian ezarritakoaren arabera, erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea. Estatutuok, bestalde, maiatzaren 22ko 82/2010 Dekretuak onartu zituen.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eskaintza-prestakuntzaren arloko 2013ko diru-laguntzetarako deialdia argitaratzea, enplegurako lanbide-heziketaren azpi-sistemaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei lehentasunez zuzendutako prestakuntza-jarduerak burutzeko. Deialdia Lanbideren Administrazio Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 13ko Erabakiaren bidez onartu da, eta ebazpen honen eranskinean jasota dago.

Bigarrena.– Jakinaraztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera izango dituela ondorioak laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Akordioak.

Hirugarrena.– Jakinaraztea, deialdia onartzen duen Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 15a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

ERANSKINA

ESKAINTZA-PRESTAKUNTZAREN ARLOKO 2013KO DIRU-LAGUNTZETARAKO DEIALDIA, ENPLEGURAKO LANBIDE-HEZIKETAREN AZPISISTEMAREN ESPARRUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANGABEEI LEHENTASUNEZ ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA-JARDUERAK BURUTZEKOA.

Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legearen 26. artikuluan adierazten da, Enplegurako Lanbide Heziketaren lege-esparruan, enplegurako prestakuntza-azpisistemaren barruko heziketa-jarduerak lanerako gaitasun eta kualifikazioak lortu, hobetu eta etengabe eguneratzera zuzenduta daudela; horrela, prestakuntza bultzatzen da biztanleria aktiboaren bizitza guztian zehar, pertsonen, enpresen, lurraldeen zein ekoizpen-sektoreen beharrizanak osotasunean aintzat hartuta, betiere.

Orobat, Enpleguari buruzko lege horren 19. quater artikuluak –otsailaren 18ko 3/2011 Errege Lege Dekretuak erantsia– honako hau sartzen du pertsona langabeei zuzendutako enplegu-zerbitzu publikoen zerbitzu-katalogoaren barruan: «Enplegurako lanbide-heziketako jarduerak eskaintzea, Profesionaltasunaren Ziurtagiri Katalogoaren bidezko kreditatze ofizialarekin, heziketa-jarduera horiek Kualifikazioen Katalogo Nazionalera atxikita daudenean, bai eta egindako prestakuntzaren lanez kanpoko praktikak sustatzea ere».

Martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuak, enplegurako lanbide-heziketaren azpi-sistema arautzen duenak, hainbat programazio-aukera eta heziketa-eskaintzarako bide ezartzen ditu, azpisistemak lortu nahi dituen helburuetara iristeko beharrezkoak direnak. Dekretu horretan jasota dago, halaber, profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera bideratutako heziketaz gainera, ziurtagiriei lotuta ez dagoen prestakuntza ere egiteko beharra, lan-merkatuaren eta ekoizpen-sektoreen beharrizan aldakorretara moldatze aldera.

Enplegurako lanbide-heziketaren jarduerak dira langabezian dauden langileen enplegagarritasuna sustatzeko eskain dakizkiekeen zerbitzu nagusietako bat; izan ere, lanbide jakin bat garatzera bideratutako kualifikazioa hobetzeko aukera ematen dute, lanbide-arlo jakin baten jakintza bereziki lantzen dute, eta sektore eta jarduera ekonomiko guztiei aplikatzeko moduko tresnak eta gaitasunak eskaintzen dituzte. Ildo horretan, enplegurako prestakuntza-profesionala da enplegua sortzeko politika aktiboen artean tresnarik osoena. Honako alderdi guztiak modu global eta integratuan hartzen ditu: orientazio- eta aholkularitza-lana, prestakuntza-jarduera eraginkortasunez ematea –ikuspegi teorikoa eta praktikoa barne hartuta–, lanez kanpoko praktika profesionalak egitea, kontratazio-konpromisoak eskaintzea, eta, batez ere, prestakuntza profesionalaren azpisisteman enplegua duten eta ez duten pertsonekin aurrera eramaten den ibilbide profesionala eta trebakuntzakoa.

Europar Batasunaren eremuan, etengabeko ikaskuntza enplegu-estrategiaren oinarrizko ardatza da jakintzan oinarritutako ekonomia batean, eta, haren helburua globalizazioaren ondorioz ekonomia-arloan eta gizartean pairatzen ari garen aldaketei erantzutea da, enplegua indartuz, eta, horrekin batera, ekonomia berritzeari eta gizarte-kohesioari lagunduz.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari esleitzen dio enplegu-politika, baita enplegurako lanbide-prestakuntzaren azpi-sistema ere.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokio, beste zenbait funtzioren artean, enplegu-programen, enplegurako prestakuntza-programen eta autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko programen kudeaketa, eta dagozkion diru-laguntza deialdiak onartu eta izapidetzea ere biltzen du funtzio horrek, 82/2012 Dekretuak onarturiko erakunde autonomoaren estatutuen 3.b) artikuluan ezarrita dagoenez. Enplegurako prestakuntzaren barruan, eskaintza-prestakuntzari dagokionez, lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-jarduerak daude.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere funtzioak betez, eta, lan-merkatuaren lan-sarean ikusitako premiak kontuan hartuta, Euskadiko lurralde-eremuan garatu beharreko prestakuntza-jardueren plangintza egin du, prestakuntza-espezialitateen arabera, lehentasunez langabeen ezaugarrietara egokitzeko, eta, baita produkzio-sektoreen premietara ere. Prestakuntza-jardueren plangintza horretan oinarrituta, egin beharreko jardueren programazio-eskaintza finkatu da, eta, horrekin batera, programatu beharreko prestakuntza-espezialitateak, -moduluak eta -orduak, ikastaroen kopurua eta lurralde-banaketa, betiere deialdi honen I. eranskinaren (Profesionaltasun Ziurtagiriak) eta II. eranskinaren (izaera orokorreko espezialitateak) arabera.

Horiek horrela, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren proposamenez, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak 2013ko maiatzaren 13ko bileran onartu du enplegurako lanbide-heziketaren azpi-sistemaren esparruko 2013ko diru-laguntzetarako deialdia, eskaintza-prestakuntzaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei lehentasunez zuzendutako prestakuntza-jarduerak burutzekoa. Hona hemen deialdiaren oinarriak:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea, enplegurako lanbide-heziketaren azpi-sistemaren esparruan, eskaintza-prestakuntzaren arloko 2013ko diru-laguntzetarako deialdia arautzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei lehentasunez zuzendutako prestakuntza-jarduerak –martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuan eta martxoaren 7ko TAS 718/2008 Aginduan arautuak– burutzeko.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi honen xede diren prestakuntza-jarduerak finantzatzeko, 24.928.080 euro bideratuko dira; horietatik, 13.710.444 euro 2013ko ordainketa-kredituaren kontura finantzatuko dira, eta, 11.217.636 euro, 2014ko konpromiso-kredituaren kontura.

3. artikulua.– Jarduera diruz lagungarria.

1.– Diru-laguntza jaso ahalko da honako prestakuntza-jarduera hauek burutzeko: artikuluan aurreikusitako hartzaileei zuzenduak izanik, deialdi honen I. eranskinean (Profesionaltasun Ziurtagiriak) eta II. eranskinean (izaera orokorreko espezialitateak) jasotzen diren prestakuntza-eskaintzaren barruko espezialitateei lotuta daudenak. Eranskinean zehazten dira, halaber, prestakuntza-moduluak eta -orduak, prestakuntza-jardueren kopurua eta horien lurraldekako banaketa.

Ezin izango da eskatu I. eta II. eranskinetan ez dagoen espezialitaterik.

2.– Prestakuntza-espezialitateen programazioari dagokionez, ibilbide osoak programatzen dira espezialitatearen ordu guztiak barne hartzen direnean, edota ibilbide partzialak, prestakuntza-espezialitateen fitxategian ezarritakoak baino ordu gutxiago programatzen direnean. Salbuespen izango da profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko, lantokietan emango den prestakuntza praktikoko modulua, hori enpresekin izenpetutako hitzarmen bidez egingo baita Espezialitate modulatuen kasuan, ibilbide partzialak baino ez dira programatuko espezialitateko prestakuntza-modulu bat edo gehiago osatzen direnean.

3.– Prestakuntza-jarduerak 2013ko ekitaldian hasi beharko dira, deialdi honen ebazpena argitaratzen den unetik aurrera, eta 2014ko ekainaren 30a baino lehen bukatu beharko dira.

4.– Diruz lagundu beharreko prestakuntza-jardueretan, 15 lagunek parte hartuko dute gehienez.

4. artikulua.– Prestakuntza-jarduerak: gauzatze-eskakizunak eta -baldintzak.

1.– Kalitatea bermatzeko metodologikoki onargarritzat jotako ordutegietan emango da prestakuntza. Gehienez ere egunean 8 orduko prestakuntza jaso ahalko dute parte-hartzaileek, nahiz eta iraupen horretako jarduerak ohiz kanpoko egoeretan besterik ez diren baimenduko. 5 orduko iraupena izango dute, gehienez ere, familia hauetakoek: Administrazioa eta Kudeaketa (ADK), Merkataritza eta Marketina (MEM), Arte Grafikoak (ARG), Informatika eta Komunikazioak (IFK), Zerbitzu Soziokulturalak eta Komunitatearentzakoak (ZSK), Irudi Pertsonala (IRP) eta Segurtasuna eta Ingurumena (SEI).

2.– Prestakuntza emango duten zentro edo erakundeek goizez, arratsaldez edo goizean eta arratsaldean banatutako ordutegietan antolatu ahalko dituzte heziketa-jarduerak. Goizez edo arratsaldez antolatzen badira, deialdi honetako heziketa-jarduera bakar bat besterik ezingo da aurreikusi ikasgela horietan goiz edo arratsalde osoan, kasuan kasu. Horrela, prestakuntza-jarduera bakar bat gauzatu ahalko da goizean, eta beste bat arratsaldean. Prestakuntza-jarduera goiz eta arratsalde banatutako ordutegian egiten bada, ordu eta erdiko atsedenaldia egin beharko da bi saioen artean, gutxienez ere, eta bi ordu eta erdikoa, gehienez ere, salbu eta jardueran parte hartzen duten ikasle guztiek atsedenaldi hori malgutzeko eskatzen ez badute.

5. artikulua.– Diru-laguntzaren onuradunak.

1.– Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe pribatuek zein publikoek eskuratu ahal izango dituzte deialdi honetan aurreikusitako laguntzak.

Era berean, bere kasa nahiz mendeko zentro eta entitateen bidez enplegurako prestakuntza profesionala eskaintzen duten enpresa-erakunde eta sindikatuek ere jaso ahal izango dituzte laguntza horiek. Bi kasuetan, behar bezala inskribatuta edo egiaztatuta egon beharko dute Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Estatuko Erregistroan edo aldez aurretik egiaztatu beharko dute, Erantzukizunpeko Aitorpen bidez, prestakuntza-zentroak edo -erakundeak betetzen dituela xede diren Profesionaltasun Ziurtagiri guztiak arautzen dituen Errege Dekretuan eskatzen diren baldintzak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, hurrengo atalean esaten den moduan.

2.– Honako hauek eskatu ahalko dituzte I. eranskinean (Profesionaltasun Ziurtagiriak) eta II. eranskinean (izaera orokorreko espezialitateak) bildutako espezialitateak:

2.1.– Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Estatuko Erregistroan inskribatutako edo onetsitako prestakuntza-zentroek, inskribatuta dauden lurralde-eremuan.

2.2.– Deialdi hau EHAAn argitaratzen den egunean, Enplegurako Prestakuntza Zentro eta Erakundeen Estatuko Erregistroan egiaztatuta ez dauden prestakuntza-zentroek Erantzukizunpeko Aitorpena aurkeztu beharko dute, prestakuntza-zentroak edo -erakundeak ematen dituen eta xede diren Profesionaltasun Ziurtagiriak arautzen dituen Errege Dekretuan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen aitorpena, alegia. Gainera, erabilera orokorrerako honako gelak izan beharko dituzte idazkaritza edo harrera-lekua, zuzendaritza-bulegoa eta irakasleen gela edo koordinazio-jardueren gela. Areto horiek adierazitako erabilerarako egokituta egon beharko dute,

itxurari eta altzariei dagokienez. Prestakuntza-zentroaren instalazioak kokatuta dauden lurralde-eremuan eskainitako espezialitateetan soilik parte hartu ahal izango dute.

Diru-laguntza eman aurretik, Erantzukizunpeko aitorpen horretan adierazitakoa egiaztatu beharko du erakunde eskatzaileak, eta Enplegurako Prestakuntzaren eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritzako teknikariek berretsi beharko dute.

Erantzukizunpeko aitorpen hori faltsutzeak dagozkion lege- eta administrazio-erantzukizunak eragingo ditu.

3.– Aurreko paragrafoetan aipatutakoaz gain, erakunde onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

Organo kudeatzaileak behar beste aldiz automatikoki egiaztatuko du laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, horretarako, ez du eskatzaileen baimenik beharko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.3 artikuluak xedatzen duenari jarraikiz.

b) Ez izatea diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien zehapen penalik edo administrazio-zehapenik, ez egotea horretarako desgaitzen duen debeku baten pean, sexuagatiko bereizkeriagatik sortutakoak barne, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraikiz.

4.– Erakunde onuradunei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa da amaituta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren edo haren erakunde autonomiadunen antzeko diru-laguntzen edo laguntzen karietara bideratzen hasitako itzulera- edo zigor-prozedurak.

6. artikulua.– Diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa.

Prestakuntza-jarduera bakoitzeko eman daitekeen diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, honako eragiketa egin behar da: jardueraren ordu-kopurua bider jarduera bakoitzeko 15 ikasle, gehienez ere, bider honako moduluen zenbatekoa, prestakuntza-mailaren arabera:

Eskola-modalitatea	Prestakuntza-maila	
	Oinarrizkoa	Goi-mailakoa
Presentziala	8 euro	11 euro

Oinarrizko eskumen eta kualifikazioa garatzeko gaitzen duen «oinarrizko mailako» modulua aplikatzen da irakasgai generiko edo zeharkakoen prestakuntza ematen denean.

«Goi-mailako» modulua aplikatzen da prestakuntzak espezializazioa dakarten gaiak barne hartzen dituenean, eta programazio- edota zuzendaritza-gaitasunak garatzeko prestakuntza ematen duenean.

Duen prestakuntza-jarduera horren modulu ekonomikoaren arabera balioetsiko da prestakuntza-jarduera espezifiko batekin batera ematen den zeharkako izaera edo izaera osagarria.

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak lortzeko eskaerak ebazpen honen III. eranskin gisa argitaratzen den eredua betez gauzatuko dira. Interesdunak diruz laguntzeko eskatutako prestakuntza-jarduera adina eskaera aurkeztuko dira.

Interesdunak eskabidearen kopia bat nahi badu, bi kopia aurkeztu beharko ditu.

2.– Arabako lurralde-eremuan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan aurkeztuko dira eskabideak (Jose Atxotegi kalea 1.); Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde-eremuetan, berriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegu Bulegoetan aurkeztuko dira. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezartzen dituen bideetako edozein erabilita aurkeztu ahal izango dira.

3.– Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

3.1.– Kasu guztietan:

a) Hirugarren Interesdunaren Datuen Alta Dokumentua, interesdunak eta dagokion bankuerakundeak behar bezala betea, aurreko ekitaldietan aurkeztu ez bada edo datuak aldatu behar badira soilik.

b) Erakundearen identifikazio fiskaleko txartel konpultsatuaren fotokopia.

c) Eskaera sinatzen duen/duten pertsona sinatzaileak/sinatzaileek pertsona juridiko eskatzailearen izenean jarduteko duten ordezkaritza egiaztatzen duen eskritura osoaren fotokopia konpultsatua.

d) Erakunde bakoitzak eskatzen dituen prestakuntza-jardueren laburpen-orriak, zentro bakoitzaren gehieneko prestakuntza-ahalmena egiaztatuta; ahalmen hori urtebetean emateko konpromisoa hartzen duten guztizko ordu-kopuruaren araberakoa izango da, IV. eranskinaren arabera. Horretarako aintzat hartuko dira deialdi honetako 4. artikuluan jasotako irizpideak eta 2013ko irailaren lehenengo hamabostaldia hartuko da prestakuntza-jarduerak hasteko aurreikusitako data gisa, nahiz eta egiazki lehenago edo geroago hasi ahalko diren.

e) Deialdi hau EHAAn argitaratzen den egunean Enplegurako Lanbide Heziketako Zentro eta Erakundeen Estatuko Erregistroan egiaztaturik edo inskribaturik ez dauden prestakuntza-zentroek Erantzukizunpeko Aitorpena –V. eranskinaren araberakoa– eta teknikari kolegiatu batek izenpetutako instalazioen plano zehatza aurkeztu beharko dituzte.

3.2.– 9.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, balioetsi behar diren hainbat suposizio egiaztatzeko:

a) A) idatzi-zatian aurreikusitako irizpideari dagokionez: zentroa irisgarritasun unibertsalera moldatuta egoteko betekizuna bete dela egiaztatzen duen ziurtagiria, teknikari kolegiatu batek egina; salbuetsita daude artikulu horretan agiri horiek aurkeztetik berariaz salbuetsitakoak.

b) B) idatzi-zatian aurreikusitako irizpideari dagokionez: zentroak kalitate-ziurtagiria duela egiaztatzen duen agiria. Fotokopia konpultsatua.

c) C) eta D) idatzi-zatietan aurreikusitako irizpideei dagokienez: instalazioak, altzariak eta ekipoak eguneratzeari buruzko txostena (VII. eranskina), eraginpeko espezialitateak eta bulegoak zein diren zehatuta, eta deialdi hau argitaratu aurreko azken 36 hilabeteetako instalazioen, altzarien eta ekipoen amortizazio-taularekin batera. D) Irizpidean, alokatutako ekipoen kasuan,

alokairu-kontratuaren fotokopia konpultsatua eta egindako azken ordainketaren egiaztagiria. Alokairu-kontratuan, hitzartutako zenbatekoa agertu beharko da.

d) H) idatzi-zatian aurreikusitako irizpideari dagokionez: 2011ko deialdiko prestakuntza-jardueretan –2011n eta 2012an burutuak– parte hartu duten ikasleak kontratatzen prestakuntza-zentroak edo -erakundeak egindako bitartekaritza-lanaren erantzukizunpeko aitorpena. Hauek adieraziko dira: kontratatuaren datuak, lan-kontratuaren datuak eta adierazpenaren xede den kontratua egin zeneko enpresaren sinadura (VI. eranskinaren arabera).

4.– Eskabideak ez baditu baldintza guztiak betetzen, interesdunari jakinaraziko zaio 10 laneguneko epea duela, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, izandako hutsa edo akatsa konpontzeko. Hala egin ezean, bere eskabidean atzera egin duela ulertuko da, horrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusita dituen ondorioekin.

5.– Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, deialdi hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik hasita.

8. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa-araubidearen arabera izapidetuko da.

2.– Diru Sarreren Bermerako eta Enplegurako Prestakuntzako Zuzendaritza arduratuko da eskabideak kudeatu eta bideratzeaz.

3.– Kide anitzeko organo batek ebaluatuko ditu eskaerak, hurrengo artikuluan aurreikusitako irizpideen arabera. Hona hemen ebaluazio-organoaren osaera:

• Lehendakaria: Enplegurako Lanbide Heziketako Arloko arduraduna.

• Kideak: Enplegurako Lanbide Heziketako Arloko arduradunak izendatutako lau teknikari; horietako batek idazkari gisa jardungo du.

4.– Kide anitzeko organoak, egindako balioespenean oinarrituta, ebazpen-proposamen bat landuko du, eta deialdi hau ebazteko eskumena duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari helaraziko dio.

Erantzukizunpeko Aitorpenaren bitartez inskribatzeko bete beharreko baldintzak bete direla egiaztatzen den kasuetan, ebazpenean jasoko da zentro edo erakunde eskatzailea inskribatzeko edo egiaztatzeko erabakia, betiere deialdi honen 5.2.2 artikuluaren arabera.

Ebazpena Lanbideren Zerbitzu Zentralen iragarki-taulan argitaratuko da, eta www.lanbide.net webgunean emango da horren berri.

5.– Prozeduraren ebazpena egin eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, deialdi hau EHAAn argitaratzen den egunetik hasita. Epe hori igaro ondoren ebazpenik jakinarazten ez bada, eskabidea baztertutzat jo ahalko da.

Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena erakundearen iragarki-taulan argitaratuz jakinarazten den egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

9. artikulua.– Balioespena egiteko eta diru-laguntza emateko irizpideak.

1.– Eskabideak balioesteko, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

A) Zentroa irisgarritasun unibertsalera moldatuta egotea: puntu 1.

1) Puntu hori zuzenean emango da –baldintza hori betetzen dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu gabe– honako kasu hauetan:

a.– Euskal Autonomia Erkidegoko kudeaketa-eremuan langabeentzako eskaintza-prestakuntza emateko inskribatuta eta/edo egiaztatuta dauden prestakuntza-zentro eta -erakundeei, betiere Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren kudeaketa-eremuan enplegurako eskaintza-prestakuntza ematen duten zentro eta erakundeen inskripzioa eta, hala badagokio, egiaztapena arautzen dituen Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2010eko uztailaren 29ko Ebazpenaren arabera.

b.– Lanbide edo lanpostuan aritzeko ezintasun psikologiko zein fisikorik ez izatea eskatzen duten espezialitateetan, esaterako, Segurtasun Pribatuko jagoleak eta salgaien zein bidaiarien errepideko garraioarekin zerikusia duten espezialitateak.

c.– Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei bereziki zuzendutako prestakuntza-jarduerak emateko, eskaintza-prestakuntzari dagokionez, enplegurako lanbide-prestakuntzaren azpi-sistemaren eremuan 2012ko ekitaldian Lanbideren diru-laguntzak emateko deialdietan parte hartu zuten prestakuntza-zentro eta -erakundeak, «Zentroa irisgarritasun unibertsalera moldatuta egotea» atalean puntu bat lortu zutenak.

2) Egiaztapena edo izen-ematea aipatutako EEZPren ebazpena baino lehenagoko legediaren arabera egin zuten zentroek, eta deialdira erantzukizunpeko aitorpenaren bidez jotzen duten zentroek ere puntu 1 lortuko dute atal honetan, baldin eta teknikari kolegiatu batek egindako irisgarritasun unibertsalaren baldintza betetzeari buruzko ziurtagiria aurkezten badute.

3) Ziurtagiri hori aurkezten ez badute, 0 puntu lortuko dituzte atal honetan.

B) Zentroaren Kalitate Ziurtagiria: 2 puntu gehienez.

1) Euskalitek ematen duen 200 edo 300 puntuko Bikaintasunarekiko Konpromiso Diploma edo 200+ edo 300+ Europar Bikaintasunaren Ziurtagiria duela egiaztatzen duen prestakuntza-zentro edo -erakundeak puntu 1 jasoko du.

2) 2 puntu jasoko dituzte honako ziurtagirietakoren bat jaso duten prestakuntza-zentro edo -erakundeek.

● ISO 9011 (2008) Ziurtagiria.

● Eusko Jaurlaritzaren zilarrezko Q aitorpenaren ziurtagiria edo Europar Bikaintasunaren 400+ ziurtagiriaren baliokidea.

● Eusko Jaurlaritzaren urrezko Q aitorpenaren ziurtagiria (Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Kalitateari Euskal Saria) edo Europar Bikaintasunaren 500+ ziurtagiriaren baliokidea.

3) Adierazitako ziurtagirietako bakar bat ere egiaztatzen ez duten prestakuntza-zentro eta -erakundeek 0 puntu jasoko dute.

Prestakuntza-zentro edo -erakundeek kalitate-ziurtagiriak izateagatik lortutako puntuak ez dira metatuko. Puntu gehien ematen dizkiona bakarrik hartuko da aintzat.

ISO 9001 Ziurtagiriek indarrean egon beharko dute baloratu ahal izateko. Konpromiso-diplomak eta Europar Bikaintasunaren ziurtagiriak (EFQM) eman zireneko data kontuan hartu gabe balioetsiko dira.

C) Altzariak eta instalazioak eguneratzea. Deialdi hau argitaratu aurreko azken 36 hilabeteetan aplikatutako amortizazioarekin bat baloratuko da, salbu eta zentroa irisgarritasun unibertsalari egokitzeko esku-hartzea. 2 puntura arte.

1) Instalazio berriak edo instalazioen eraberritze nabarmenak (36 hilabeteetan, lehiatzen den espezialitatearen % 30a baino gehiagoko amortizazioa, instalazioena): 1,5 puntu.

2) Instalazio eraberritze partziala (36 hilabeteetan, lehiatzen den espezialitatearen % 15a baino gehiagoko amortizazioa, instalazioena): 0,5 puntu.

3) Altzariak eta tresnak berritzea (36 hilabeteetan, lehiatzen den espezialitatearen % 5a baino gehiagoko amortizazioa, altzariena): 0,5 puntu.

7. artikuluko 3.2 paragrafoko 2 idatzi-zatian zehaztutako eran, memoria eta irizpide hau justifikatzeko amortizazio-taula ez aurkezteak atal honetan 0 puntu izatea ekarriko du.

Instalazioak eta/edo altzariak espezialitate bat baino gehiagotan berritzen badira, horietan puntuatu ahal izango da, hain justu ere lehiatzen den espezialitateetarik bakoitzaren zenbatekoarekin konparatuaz aplikatutako amortizazioa.

Prestakuntza-ekintza likidatzen denean, ekonomia-espedientearen auditoreak honako hau ziurtatu beharko du: atal honetan aurkeztu eta baloratutako amortizazioa benetan aplikatutakoari dagokiola.

D) Ekipoak eguneratzea. Deialdi hau argitaratu aurreko azken 36 hilabeteetan zehar aplikatutako amortizazioarekin bat baloratuko da, erositako ekipoei dagokienez; eta azken 36 hilabeteetako alokairu-kostuan oinarriturik alokatutako ekipoei dagokienez: puntu batera arte.

● Ekipoak eta makinaria berritzea (36 hilabeteetan, lehiatzen den espezialitatearen zenbatekoaren % 15a baino gehiagoko zenbatekoa, amortizazioarena edo alokairuaren kostuarena): 1 puntu.

Berritu den ekipoa espezialitatea emateko erabiltzen den espezialitateetan bakarrik balioetsiko da. Ekipo bat berritzea espezialitate batean baino gehiagotan puntuatu ahalko da, betiere ekipo hori erabili bada espezialitatea emateko.

7. artikuluko 3.2 paragrafoko 2 idatzi-zatian zehaztutako eran, memoria eta irizpide hau justifikatzeko amortizazio-taula ez aurkezteak atal honetan 0 puntu izatea ekarriko du.

Prestakuntza-ekintza likidatzen denean, ekonomia-espedientearen auditoreak honako hau ziurtatu beharko du: atal honetan aurkeztu eta baloratutako amortizazioa benetan aplikatutakoari dagokiola.

E) Prestakuntza-jardueren kalitatea: 4 puntura arte.

Baremoa: baremoa ezarri behar zaion espezialitatean ebaluatu diren 2012ko deialdiko ikastaroen «sintesi-adierazleen» batez bestekoa aplikatuko da.

55,20 puntutik behera: 0 puntu.

55,21 eta 69,00 puntu bitartean: 0,5 puntu.

69,01 eta 75,90 puntu bitartean: puntu 1.

75,91 eta 80,90 puntu bitartean: 1,5 puntu.

80,91 eta 85,80 puntu bitartean: 2 puntu.

85,81 eta 90,70 puntu bitartean: 2,5 puntu.

90,71 eta 95,60 puntu bitartean: 3 puntu.

95,61 eta 103,50 puntu bitartean: 3,5 puntu.

103,50 puntutik gora: 4 puntu.

Aurreko urtean eskatutako espezialitatea eman ez duten zentroek 2 puntu jasoko dituzte atal honetan, salbu eta 2011n kontzeptu honengatik 2 puntu baino gutxiago jaso badituzte; kasu horretan, orduan jaso zuten puntuazioa jasoko dute.

Kide anitzeko organoaren bilera egiten den garaian, sintesi-adierazlearen bidez balioetsi ezin izan den prestakuntza-ekintza bat aurreko urtean eman izan duten zentroak 2011ko adierazlearen arabera balioetsiko dira, espezialitate bera eman badute urte horretan. Bestela, 2 puntu emango zaizkie.

2012ko deialdian, espezialitate jakin batean kontratazio-konpromisoa hartu bai baina bete ez duten zentroek gehienez ere 2 puntu jasoko dituzte espezialitate horretan, sintesi-adierazlearen arabera puntu gutxiago jasotzen ez badira.

F) Eskaintzen diren lanbide-ziurtagiriak lortzera bideratuak ez diren espezialitateei dagokienez (2011-04-01eko EHAA, 2012-08-27ko EHAA eta 2012-10-23ko EHAA), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurreko deialdietan gauzatutako praktika ez-laboralak (batez ere, langabetuentzakoak): 2 puntura arte.

● Prestakuntza-zentroek eta -erakundeek 0,1 puntu jasoko dituzte benetan burututako praktika bakoitzarengatik, guztira, gehienez, 2 puntu, aurreko deialdietan haiek egiteko konpromisoa hartua izan edo ez izan hartua.

Baloratuak izateko, praktikak bukatu egin beharko dira. Deialdia baloratzeko kide anitzeko organoaren batzar-egunaren bezperan bukaturik dauden praktika guztiak baloratuko dira.

G) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurreko deialdietan oinarriturik (2011-04-01eko EHAA, 2012-08-27ko EHAA eta 2012-10-23ko EHAA), batez ere langabetuentzako diren profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-jardueretan –lantokietan– prestakuntza praktikoaren modulua gauzatzea. Prestakuntza-jarduera horiek: ibilbide osoarekin edo partzialarekin programatuak, azken kasu horretan, profesionaltasun-ziurtagiri egokiaren prestakuntza-ibilbidea bukatu badu ikasleak. 2 puntura arte.

● Prestakuntza-zentroek edo -erakundeek 0,1eko puntuazioa izango dute, lehiatzen diren prestakuntza-espezialitate berean, lan-zentroko prestakuntza-modulua bukatzen duen ikasle bakoitzeko.

Kide anitzeko organoa deialdi hau ebazteko biltzen den egunera arte balioetsiko da aipatu betetzea.

Deialdi honetan eskaintzen diren profesionaltasun-ziurtagiriko prestakuntza-jarduera guztiei emango zaie puntuazioa, nahiz eta ibilbide osoa ez eskaini eta gaitasun-unitateka programatu.

H) 2011ko ekitaldiko laguntza hauen deialdiko prestakuntza-jardueretan parte hartutako ikasleen lan-kontratuak –2011 eta 2012an formalizatuak eta prestakuntza-jarduera egin zuteneko prestakuntza-zentro edo -erakundeak sustatuak izan direnak– zentro horiek 2011ko programan eskaera egin zutenean kontratazio-konpromisorik hartu izan ala ez: 2 puntura arte.

- Ikasle bat kontratatzea: puntu 1.
- Bi ikasle kontratatzea: 2 puntu.

Deialdi honetan lehiatzen deneko espezialitate berean egindako jarduerak balioetsiko dira. Gidabaimen profesionala lortzeko espezialitateetan egindako kontratazioak ez dira balioetsiko.

Gutxienez 6 hilabeteko iraupena lanaldi-erdian eta lanaldi osoan 3 hilabetekoa duten kontratuak bakarrik balioetsiko dira, edozein dela ere kontratazio-modalitatea. Nolanahi ere, jasotako prestakuntzaren eta kontratuaren xede den lanaren arteko lotura errespetatu beharko da.

2.– Aurreko balioespen-irizpideak aplikatuta, eskaera bakoitzari esleitutako puntuazioa lortu ondoren, hautaketa eremu geografikoen eta espezialitate bakoitzaren arabera egingo da, honako esleipen-irizpide hauei jarraikiz:

a) Azken puntuazioaren balio absolutuaren arabera ordenatuko dira eskaerak, puntuaziorik handienetik txikienera, onartu beharreko prestakuntza-ekintzen espezialitate eta eremuaren arabera, esleitutako aurrekontua amaitu arte.

b) Zentro edo erakunde bati esleitutako prestakuntzek zentroaren prestakuntza-ahalmena gainditzen badute, lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera dagokien zentroei esleituko zaizkie ikastaroak.

c) Balioespen-irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskaerek puntuazio berdina lortzen badute, espezialitate horretarako eskainitako ikastaroak esleituko dira –gehienez ikastaro bat emango zaio erakunde eskatzaile bakoitzari–, honako arau hauei jarraikiz:

1) Espezialitate horretarako sintesi-adierazlearen arabera puntuazio onena lortu duen zentroari, 9. artikulu honen 1. paragrafoko E) idatzi-zatian xedatutakoaren arabera.

2) Prestakuntza-espezialitatea azken hiru urteetan eman duen zentro edo erakundeari; halakorik ezean, azken hiru urteetako bitan eman duenari, eta, halakorik ezean, azken hiru urteetako batean eman duenari.

3) Dagokion lurralde-eremuaren eta jardun-esparruaren barruan espezialitatean antzinatasunik handiena duen zentro edo erakundeari.

4) Azpisistemaren zentro laguntzaile gisa erregistratuta edo egiaztatuta antzinatasunik handiena duen zentro edo erakundeari.

5) Berdinketa hausten ez bada, eskabideak aurkezteko hurrenkerari men egingo zaio.

Prozedura horri jarraitu ondoren oraindik esleitu beharreko prestakuntza-ekintzak geratzen badira, c) idatzi-zatian deskribatutako prozesua gauzatuko da berriro, jarduera guztiak esleitu arte.

10. artikulua.– Prestakuntzaren hartzaileak.

1.– Arau honetan aurreikusitako prestakuntza-ekimenetan parte hartu ahalko dute:

a) Lehentasunez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden langabetuek. Prestakuntza jasotzen hasten diren pertsona guztien ehuneko 60 izango dira, gutxienez.

b) Lehentasunik gabe, lanean egonik hala eskatzen duten langileek. Prestakuntza jasotzen hasten diren pertsona guztien ehuneko 40 izango dira, gehienez ere.

2.– Eskaintzen diren prestakuntza-jardueretarako, ikasleek horietara sartzeko eskakizunak bete behar dituzte, eta langabetu gisa izena emanda izan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, prestakuntzaren hasieran. Lanean ari diren langileen kasuan, dagokien eskaera aurkeztu behar dute.

Prestakuntza-ekintzak www.Lanbide.net web-orrian argitaratuko dira, baita izena emateko epeak eta eskatzaileek ekintzetara jotzeko bete beharreko eskakizunak ere, prestakuntza-jarduera bakoitzaren deskribapenaz eta ezaugarriez gainera.

3.– Partehartzaileak hautatzeko, hautaketa-proba bat egongo da beharrezkoa den prestakuntza-jarduera guztietan, betiere ekintzari probetxua ateratzen zaiola bermatzeko eta gaitasuna lortzeko ekintzak burutzeko aurretiaz izan behar den ezagutza-maila erreala zehazteko, hala badagokio, 2. eta 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-moduluetan sartzeko beharrezkoak diren gaitasun funtsezkoak barne.

4.– Euskal Enplegu Estrategiarekin (2011-2014) eta Espainiako Enplegu Estrategiarekin (2012-2014) bat eginez, prestakuntza-jardueran parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten eta dagokion hautaketa-proba gainditzen duten langabeen artean, kolektiboen arabera lehentasuna ezarriko da, honako ordena honetan:

● Lehenik eta behin, eta lehentasun-maila berberaz, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten hauek: 30 urte arteko gazteak, batez ere prestakuntza-gabeziak dituztenak; emakumeak, langabeen kolektiboan duten pisuaren proportzioan; luzaroko langabeak; 45 urtetik gorakoak; desgaitasuna dutenak; langabezia-saria agortuta duten eta berriz profesionalki gaitzeko Prepara programan parte hartzeagatik diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsonak; Txertaketako Errenta Aktiboaren eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak; eta Genero Indarkeriaren biktimak.

● Bigarrenik, gainerako langabeak, oro har.

● Etendurako EEE baten eraginpean dauden langabeak, ordutegia dela-eta prestakuntza-jarduerara joateko libre badaude.

Pertsona batek ezingo ditu bi ikastaro batera egin, baldin eta ikastaro horiek egiteko beste eskabide batzuk badaude, eta eskatzaileek –izan langabetuak zein lanean ari direnak– sarbide-eskakizunak betetzen badituzte.

11. artikulua.– Prestakuntza-jardueretan parte hartzen dutenen betebeharrak eta ikasleak kanporatzeko prozedura.

1.– Parte-hartzaileek jarraitutasunez joan beharko dute eskoletara, eta prestakuntza-jarduerei probetxua atera beharko diete. Ezin izango dute jarduera utzi harik eta bukatu arte, salbu eta enplegua aurkitu eta horrek galarazi prestakuntza-jarduera joatea eta horri probetxua ateratzea.

2.– Ikasleak kanporatzeko arrazoiak izango dira honako hauek:

a) Hilean lau aldiz edo maizago eskoletara ez joatea, justifikatu gabe.

b) Prestakuntza-jardueraren iraupen osoan % 25eko ez-bertaratzea biltzea, dena delako arrazoiengatik, justifikatua edo ez. Prestakuntza-jardueran parte hartzen duen ikaslea hura hasi ondoren sartu bada ikastaldian, ikastaldian sartu zenetik haren amaiera bitarteko orduekiko kalkulatuko dira ikasle horrek huts egindako eskolak.

c) Eskolei probetxurik atera ezean, edo prestakuntza ematen duen zentro edo erakundeak zein Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ikasleak jarrera egokia ez duela hautematen duenetan.

3.– Hona hemen ikasle baten kanporatzea erabakitzeko jarraitu beharreko prozedura:

a) Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak edo prestakuntza-zentro edo -erakundeak kanporatzeko arrazoiren bat hautematen badu, eta, bigarren kasuan, erakundeak idazki bidez Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari horren berri eman ondoren Lanbidek jakinarazpena aintzat hartzen badu, Enplegurako Prestakuntzaren eta Diru-sarreren Bermerako zuzendariak kanporatze-prozedura hasteko erabakia hartu eta erabaki horren berri emango dio dagokion ikasleari. Ikaslea baztertzeko proposamena egiteko arrazoia azalduko da prozedurari ekiteko erabaki horretan, eta ikasleak bost egun naturaleko epea izango du alegazioak aurkezteko. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebatziko du prozedura, 15 eguneko epean. Egoerak hala eskatzen badu, prestakuntza-jardueraren jarraipen egokia bermatzeko behin-behineko neurriak har daitezke baztertze-prozedurari ekiteko erabakian. Neurri horietako bat izan daiteke ikaslea behin-behineko izaeraz baztertzea ikastalditik, prozedura abiatzeko erabakia jakinarazten zaionetik prozedura ebazten den bitartean.

b) Ebazpenaren aurka, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

12. artikulua.– Prestakuntza-jarduerak gauzatzea eta lortutako gaitasunak egiaztatzea.

1.– Diru-laguntzaren onuradunak deialdi honetan ezarritakoaren arabera eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako ereduak aintzat hartuta gauzatu beharko ditu prestakuntza-jarduerak, hala nola hasieraren berri emateko moduari, gerora izan daitekeen edozein aldaketari, prestakuntza-jarduerak bukatzeari bai eta parte-hartzaileen bertaratzea kontrolatzeari dagokionez ere. Oro har, eta aurkako jarraibiderik ematen ez bada, 7 egun naturaleko gehienezko epean egin beharko zaizkio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagozkion jakinarazpenak.

Diru-laguntza jasotzen duten ikasleez gain beste bai joan daitezke prestakuntza-jarduerara, deialdi-ebazpenaren ondorengo hamabost egunen barruan hartarako eskabidea egiten duten prestakuntza-zentroetan, betiere instalazioak eta ekipoak badituzte eta ikasle ororentzako bermatzen badira berdintasun-baldintzak. Erabilgarri diren instalazioak eta ekipoak egiaztatutakoan emango da baimena.

Prestakuntza-zentro edo -erakundeek honako material hau emango diete prestakuntza-jardueretan parte hartzen dutenei:

– Espezialitatearen eduki guztiak biltzen dituen eskuliburu bat, editatua edo euskarri informatiko batean,

– Ikastaldia behar bezala garatzeko beharrezkoa den idazmahaiko materiala eta

– Beharrezkoak diren babes-elementuak.

2.– Ikasle batzuek jarduera bertan behera uzten badute, beste ikasle batzuk sartu ahalko dira prestakuntzara haien ordez. Prestakuntza-jardueraren iraupenaren ehuneko 25era iritsi baino lehen onartuko da ordezpen hori, salbu eta profesionaltasun-ziurtagiriei loturiko prestakuntza-jarduerak

badira, kasu horretan ordezpena prestakuntza-jarduera hasi eta lehen bost eskola-egunetan gertatzen bada onartuko baita soilik, betiere ehuneko hori gainditu ez bada.

Ordezkapena egiterakoan, kontuan hartuko da ikasle-taldeak ezarritako gutxieneko portzentajeak bete behar dituela: taldearen % 60 langabezian dauden pertsonek osatuko dute, eta, lanean daudenek gehienez ere % 40 izango dira. Dena den, jardueraren hasierako aldian gertatzen diren bertan behera uzte horiek ez badira ordezten eta prestakuntza-ekintzan jarraitzen dute pertsonen kopurua ehuneko 60tik behera jaisten bada, prestakuntza-jarduera egikaritzen jarraitu ahalko da.

Hasitako jardueretara eransten diren ikasleek ikastaroari probetxua ateratzeko gaitasuna bermatzen duen adinako maila eduki behar izango dute, ikastaroaren garapen arruntari eragin gabe. Hori dela eta, prestakuntza-jardueraren aprobetxamendua eta garapen arrunta bermatze aldera, parte-hartzaileen hautaketa-prozesuak irizpideak ezarri beharko ditu ikasleek prestakuntza-j arduera behar bezala jarraitzeko adinako gutxieneko maila dutela bermatzeko.

3.– Prestakuntza-jardueran parte hartuko duten langabeei dagokienez, prestakuntza emateaz arduratzen diren zentro eta erakundeek berehala eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari parte-hartzaileen ukoen, ez-bertaratzeen eta uzteen berri, gertaera horien arrazoiak zehaztuta.

4.– Prestakuntza profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera bideratuta ez dagoenean, parte-hartzaile bakoitzari bertaratze-ziurtagiri edo diploma bat emango zaio, prestakuntzaren ebaluazio positiboa lortu badu. Horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako ereduak erabiliko dira, eta, eredu horietan, ekintzaren izena, prestakuntza-edukiak, modalitatea, iraupena eta emateko aldia jasoko dira gutxienez.

5.– Prestakuntza profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko bada, urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren 14. artikuluaren idazkuntza berriaren arabera (martxoaren 15eko 189/2013 Errege Dekretuak aldatu zuen), ikaslearen ebaluazioa moduluei jarraiki egingo da ikaskuntzaren emaitzak egiaztatzeko eta, horrenbestez, lanbide-gaitasunak lortu dituela egiaztatzeko.

Ebaluazioa sistematikoki garatuko da, aldez aurreko plangintza bati egokituta, eta bertan jasoko dira, gutxienez, modulu bakoitzerako, hura egiteko aurreikusitako egunen aurreikuspena, zein tokitan burutuko den, erabiliko diren ebaluazio-tresnak eta horien aplikazioak emango duen denbora.

Prestakuntza-moduluetan egiaztatu beharreko emaitzak horiek ezaguerei zein gaitasunetan eta ebaluazio-irizpideetan bilduriko trebetasun praktiko eta abileziei buruzkoak izango dira, eta, oro har, lanbide-gaitasunak eskuratu direla frogatzea ahalbidetu beharko dute. Gaitasun-atalen egiaztapena lortzeko, ebaluazio positiboarekin gainditu beharko dira, gai kalifikazioarekin, gaitasun-atal bakoitzari loturiko prestakuntza-moduluak.

Prestatzaileek dokumentu bidez islatuko dituzte txosten batean prestakuntza-modulu bakoitzaren ebaluazioan ikasleek lorturiko emaitzak, eta bertan bilduko da aplikaturiko ebaluazio-tresnetan ikasle bakoitzak izandako jarduna, egindako zuzenketekin eta horietan lorturiko puntuazioekin.

Modulua bukatutakoan Ebaluazio Akta egingo da, parte-hartzaile bakoitzak lortutako emaitzekin. Prestatzaileak eta prestakuntza-jarduera eman den zentro edo erakundeko pertsona arduradunak sinatuko du akta, eta ikasleen identifikazioa (izena, abizenak, NAN edo AIZ) eta emaitza («gai» edo «ez gai» kalifikazioarekin) bilduko ditu.

Lantokiko prestakuntza praktikoko modulua egiten ari diren ikasleen jarraipena eta ebaluazioa batera egingo dute prestakuntza-zentroak eta enpresak hautaturiko tutoreek. Modulu hau gaindi-

tzen duten ikasleek bi tutoreek eta enpresaren arduradunak sinaturiko ziurtagiria jasoko dute, eta ziurtagiri hori aurkeztu beharko da dagokion profesionaltasun-ziurtagiria eskatzeko.

Ikastaroa bukatzean, ebaluazioa gainditu duten parte-hartzaileei, diplomarekin batera, dagokien profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko eskaera emango zaie, edo, gaitasun-unitateka egingo diren eta osoki emango ez diren prestakuntza-jardueren kasuan, gainditutako gaitasun-unitateen akreditazio partziala lortzeko eskaera emango zaie ebaluazioa gainditzen duten ikasleei. Ikasleak ikastaroa emaitza positiboarekin gainditzen ez badu, berriz, bertaratze-ziurtagiria emango zaio.

Profesionaltasun-ziurtagiriei dagozkien prestakuntza-jarduerak ematen dituen zentroak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dizkio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari:

● Ikastaldia hasi eta 7 egun balioduneko epearen barruan:

● Ebaluazio-plangintza.

● Erabili beharreko ebaluazio-tresnak, horiek zuzentzeko eta puntuatzeko dagozkien euskarriekin.

● Amaitu eta 7 egun balioduneko epearen barruan:

● Ikasleek lorturiko emaitzak bilduko dituen dokumentazioa.

●Ebaluazio-aktak.

6.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako diplomen erregistroa egingo du.

7.– Diru-laguntzen onuradunek zuzenean gauzatuko dituzte prestakuntza-jarduerak, eta ezingo dute hirugarrenik azpikontratatu horretarako. Horri begira, ordea, diru-laguntza jaso duen prestakuntza-jarduera emateko irakasleak kontratatzea ez da azpikontrataziotzat joko.

13. artikulua.– Lanez kanpoko lanbide-praktikak.

1.– Prestakuntza profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera bideratuta ez dagoenean, lanekoak ez diren lanbide-praktiken iraupenak ezin izango du 120 orduko muga gainditu.

2.– Prestakuntza-jarduera profesionaltasun-ziurtagiria lortzera bideratuta dagoenean:

● Praktikaren iraupena eta edukiak Profesionaltasun Ziurtagiria arautzen duen Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoaren araberakoak izango dira. Enpresaren ustez praktikaren iraupena eta edukiak nahikoak ez badira, praktikaren programa eta iraupena handitu ahalko da, betiere iraupeneko 200 orduko muga gainditu gabe. Deialdi honen prestakuntza-programazioa amaitzean, profesionaltasun-ziurtagirian jasotako prestakuntza praktikoko modulua baino iraupen handiagoko praktiken txostena egingo da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak horren berri izan dezan.

● Prestakuntza-zentro eta -erakundeek lantokian eta egindako espezialitateari lotutako okupazioetan prestakuntza praktikoaren modulua egiteko aukera aurreikusi beharko dute ikastaroetan parte hartzen duten ikasleen % 100arentzat, Profesionaltasun Ziurtagiriak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren 5.bis artikuluan xedatutako salbuespen-kasuetan dauden ikasleak salbuetsita.

3.– Lanbide-praktikak gainerako prestakuntza-moduluak egin ondoren burutuko dira, eta, betiere, horiek ebaluazio positiboarekin gainditu baldin badira. Prestakuntza-jarduera profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzera bideratua ez baldin badago, gehienez ere, 2 hilabeteko epean hasi behar dira praktika horiek; eta prestakuntza-jarduera profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzera bide-

ratuta baldin badago, berriz, 3 hilabeteko epean hasi behar dira (behin ikastaldia amaituta). Arrazoi bereziak baldin badaude, eta, betiere, justifikatuta badago, Lanbidek baimena eman dezake lanbide-praktikak gainerako prestakuntza-moduluekin batera egiteko.

Praktikak prestakuntza-jarduera egiten ari diren bitartean hasi dituzten eta azken emaitza negatiboa lortzen duten ikasleek aukera izango dute praktiketan jarraitzeko. Prestakuntza-jarduera uzteak, berriz, berari atxikitako lanez kanpoko lanbide-praktika utzi behar izatea ekarriko du.

4.– Profesionaltasun-ziurtagiri osorako ikasten ez denean ere lanez kanpoko praktikak egin ahalko dira, baina ez lan-zentroko prestakuntza-modulua.

5.– Lanez kanpoko praktikak enpresen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean sinatutako eta prestakuntza-zentroek dinamizatuko dituzten hitzarmen edo akordioen bidez arautuko dira. Praktikak hasi aurretik, langileek enpresan dituzten legezko ordezkariei emango zaie akordio horren berri, baita praktikak egingo dituzten ikasleen zerrenda bat ere.

14. artikulua.– Prestakuntza-jardueren jarraipena eta kontrola.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egingo du, ikasketak ematen dituen zentroarekin batera, lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-jardueren jarraipena eta kontrola. Horretarako, prestakuntza-jarduerak garatzen diren zentroa bisitatuko du, eta idazki bidez jaso beharko du ezarritako baldintzak betetzen direla edo, hala badagokio, zer nolako irregulartasun hauteman dituen, ongi zehaztuta, arazoak konpon ditzaten.

Lanbidek bi bisitaldi egingo ditu, gutxienez, ikastaldian:

● Hasieran. Bisitaldi honetan prestakuntza ematen duen zentroaren baldintzak egiaztatuko ditu, ikastaroari eta horren garapenari buruzko datu guztiak emango dizkie ikasleei eta horiek izan ditzaketen zalantza eta galderei erantzungo die.

● Ikastaldiaren bukaeran: zentroko baldintzak egiaztatuko ditu, ikasleei amaierako inkesta pasako die, eta ikastaroaren balioespen orokorra eskatuko die.

Bisitaldi kopurua areagotu daiteke, ikastaldien iraupenaren arabera, edo arazo edo gabeziaren bat konpontzeko beharrezkoa balitz.

Prestakuntza ematen duen zentroak Lanbidera bidali beharko ditu, ikastaroaren lehenengo hilabetea bukatu baino lehenago, honako hauek:

● Ikastaldiaren funtzionamenduari buruzko txostena, homologazio-baldintzak eta ikastaldiaren hasierako komunikazioan adierazitakoa betetzen dela egiaztatzen duena.

● Ikasleei emandako kalitate-inkestak, haiek egindako ohartarazpenekin batera.

15. artikulua.– Prestakuntza-jardueren ebaluazioa.

395/2007 Errege Dekretuak eta TAS/718/2008 Aginduak prestakuntza-jardueren ebaluazioari buruz eta prestakuntza-eskaintzaren sustapenari eta kalitatea bermatzeari buruz ezarritakoaren arabera, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdi honen babesean emandako prestakuntza-jarduera guztien kalitatea aztertuko du, ebaluazio-sistema misto bati jarraikiz. Ebaluazio-sistema mistoak bi iturri hauetatik bilduko du informazioa:

A) Ikasleek betetako galdetegietatik lortutako batez besteko emaitzak, Enplegurako prestakuntza-jardueren kalitatea ebaluatzeko galdetegiak argitaratzen dituen Estatuko Enplegu Zerbitzuaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenean (BOE, 2009ko ekainaren 11koa) xedatutakoaren arabera.

B) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariak prestakuntza-jardueraren bukaeran egindako bisitaldian emandako puntuak, «Prestakuntza-zentro/erakundeak emandako heziketaren ebaluazioa» ereduzko agiriarekin bat etorrita.

Nolanahi ere, emandako prestakuntza-jardueren kalitatea ebaluatzeko nahitaez egin beharko da prestakuntza-zentro edo -erakundeak emandako prestakuntza-jarduera bakoitzarentzako sintesi-adierazle bat. Sintesi-adierazle horrek aipatutako bi iturrietatik lortutako emaitzak haztatuko ditu, beheko formula honen arabera:

Ebaluazioaren sintesi-adierazlea = A x 0,6 + B x 0,4

A = 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenaren arabera ikasle guztiek betetako galdetegietatik lortutako batez besteko puntuak.

B = Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariak emandako puntuak, guztira, XI. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Nolanahi ere, beste informazio iturri batzuk ere aintzat hartu ahalko dira, halakorik balego; besteak beste, prestakuntza-zentro edo -erakundeen kargu utzitako ebaluazio-ekintzetan lortutako emaitzak.

16. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da:

● % 55ekoa izango da lehen ordainketa, eta diruz lagundutako prestakuntza-jarduera hasi ondoren egingo da.

● Bigarren ordainketa, % 45ekoa, 2014ko ekitaldian egingo da, prestakuntza-jarduera amaitu ondoren, eta ekintza behar bezala justifikatu eta likidatutakoan.

Aurretiazko lehenengo ordainketa hori bermeen erregimenarekin bat etorriz egingo da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren arabera ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Ordainketa bakoitza baino lehen, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatuko da, deialdi honen 5.3.a) artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

17. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa eta likidazioa.

1.– Justifikazio-epea.

Diru-laguntzaren onuradunak prestakuntza-jarduera amaitu eta –gehienez ere– hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko dizkio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari prestakuntza-jarduera gauzatu izanaren eta jardueraren garapenean egindako gastuen justifikazioei dagozkien agiriak.

Ezarritako epean goiko paragrafoan aipatutako agiririk aurkezten ez badu, eskumeneko organoak 15 eguneko epe luzaezina emango dio onuradunari agiri horiek aurkez ditzan. Bigarren epe hori amaitu eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, itzultze-prozedurari hasiera emango zaio.

2.– Diruz lagundu daitekeen aldia.

Diruz lagundu daitekeen gastu gisa aurkeztu eta onartu ahalko dira prestakuntza-jarduera ematen den garaian egindakoak, baita prestakuntza-jarduera hasi aurreko hilean zein hura bukatu ondorengo hilean egindakoak ere.

Prestakuntza-jarduera hasi aurretik egindako gastu gisa aurkeztutakoak ezingo dira izan, inola ere, diru-laguntza emateko ebazpena onartu zen egunaren aurrekoak.

3.– Diru-laguntzaren justifikazioan zenbatu daitezkeen ikasleak.

Laguntzen likidazioa, prestakuntza-jarduerak amaitu dituzten parte-hartzaileen eta benetan egin dituzten eskola-orduen arabera egingo da, ezarritako modulu ekonomikoei jarraikiz. Likidazioak ez du inola ere gaindituko hasiera batean onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa.

Prestakuntza egikaritu ondoren diru-laguntza zehaztean, ikasle batek prestakuntza amaitu duela hartuko da kontuan, baldin eta prestakuntza-jardueraren iraupenaren ehuneko 75ean bertaratu bada.

Langabeen kasuan, prestakuntza-jarduera enplegua aurkitu dutelako utzi behar izan duten langabeek prestakuntza-jarduera hori amaitu egin dutela ulertuko da, betiere laneratzeagatiko baja hori gertatzen bada zentroak pertsona horiek ordezkatzeko daukan epea igaro ondoren.

Bertan behera uzteak prestakuntza-orduen % 25 eman ondoren gertatzen badira, prestakuntza-jarduerak hasi dituzten parte-hartzaileen kopuruaren % 15eko desbideratzeak onartuko dira gehienez, prestakuntza-jarduera bakoitzeko.

4.– Auditorearen txostena jasotzen duen justifikazio-kontua.

Onuradunak diruz lagundutako prestakuntza-jarduera egin izana justifikatu beharko du, bai eta jarduera horrek sortutako gastua ere, auditorearen txostena jasotzen duen justifikazio-kontu baten bidez; azken horrek bat etorri beharko du diruz lagundu daitezkeen kostuekin eta artikulu honetan ezarritako gastu egozgarrien irizpideekin.

Auditorearen txostenak berretsi beharko du aitortutako gastuak egozgarriak direla, balio frogagarri bereko faktura edo kontabilitate-agiriekin egiazta daitezkeela, eta, gainera, gastuok prestakuntza-jarduerarekin lotzen dituen zigiluarekin sailkatu dituela onuradunak, diruz lagungarria den epearen barruan ordaindu izana eta ordainketa gauzatu izanaren lekukotasunik badagoela egiaztatzeaz gainera. Xede horretarako, zigiluak adieraziko du zer prestakuntza-jarduera justifikatzeko aurkeztu diren jatorrizko egiaztagiriak eta egiaztagirien balioa guztiz edo hein batean egozten zaion diru-laguntzari (bigarren kasuan egotzitako zenbateko zehatza adierazi beharko da).

Era berean, egiaztatu behar du ezen, C) eta D) balioespen-irizpideetan aurkeztutako eta baloratutako amortizazio-taula bat datorrela prestakuntza-zentro edo erakundeak benetan aplikatu duenarekin.

Onuradunak nahi duen auditorea aukeratu eta kontratatuko du, Kontabilitatearen eta Kontu Auditoretzaren Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako jarduneko auditoreen artean, eta merkatu askeko eta sektoreko batez besteko ordainsariak errespetatuz.

Justifikazio-kontuarekin batera aurkezten den auditore-txostenak eragindako gastua diruz lagun daitekeen gastutzat joko da, eta, justifikatu egin beharko da artikulu honetako 13.C.2 paragrafoan adierazitakoaren arabera.

5.– Justifikatzeko erabili beharreko dokumentuak.

Prestakuntza-jarduera bakoitza justifikatzeko honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

– «Gastuen aitorpena eta prestakuntza-jardueraren azken likidazioa». Deialdi honen VIII. eranskina.

– «Gastuen frogagiri-zerrenda». Deialdi honen IX. eranskina.

– «Amortizazio-koadroa». Deialdi honen X. eranskina.

– Diru-laguntza bat baino gehiago aldi berean jasotzen ez dela egiaztatzen duen aitorpena.

– BEZaren urteko aitorpena (390. eredua), baldin eta beharrezkoa bada.

– Prestakuntza-jardueraren auditoria-txostena.

6.– Aitortu beharreko gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin –zalantzarik gabe– bat datozenak eta justifikazio-epea amaitu aurretik ordaindu direnak.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat aurkezten diren ondasun edo zerbitzuen eskuratze-kostua ezin izango da merkatu-balioa baino handiagoa izan, inola ere, eta bereziki hartzailearen eta ordaintzailearen artean lotura dagoenean.

Diru-laguntzen onuradunek diruz lagunduriko prestakuntza-jarduerek sorturiko gastu guztiak aitortu beharko dituzte. Ez da onartuko diru-laguntzaren likidazioaren ondoren aurkezturiko gastuen frogagiririk.

Onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu beste horrenbeste hornitzailerengandik –salbu eta gutxieneko kopuru hori ez dagoela justifikatuta badago–, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak aplikatzen direla bermatzeko, produktu eta zerbitzuen eskuratzea kostuen egozpenaldian egin behar denean eta 18.000 eurotik gorakoa denean.

7.– Gastuen justifikazioa.

Gastuak faktura bidez eta zuzenbide- eta merkataritza-zirkulazioan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-efikazia duten gainerako dokumentuen bidez egiaztatuko dira. Diru-laguntzen onuradunek prestakuntza-ekintzaren kostuaren justifikazioan egozten diren gastuen eta ordainketen frogagiriak izango dituzte.

Faktura, oso-osorik, prestakuntza-jarduera bati egozten bazaio, hari dagokion prestakuntza-jardueraren identifikatzailea jasoko da faktura horretan. Partzialki egozten bada, idazki erantsi batean zehaztuko dira zein diren egozten diren elementuak, baita haietako bakoitzaren prezioak ere.

Fakturek egindako eragiketaren deskribapen osoa eta xehatua jaso beharko dute, eta fakturaziorako betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duen azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuaren (2012ko abenduaren 1eko BOE) eskakizunetara egokituko dira.

Fakturaren kontzeptua autoesplikatiboa ez denean, dagozkien entregen emate-agirien kopia konpultsatua erantsiko zaie faktura horiei.

Aldaketak edo zirriborroak dituen dokumentuak ez dira gastu-frogagiri bezala onartuko. Zerbait argitu nahi bada, idazki bat erantsiko zaie frogagiriei.

Likidazioarekin batera aurkezten diren idazki guztiek diru-laguntzaren onuradunak sinatuta eta zigilatuta egon beharko dute.

8.– Kontabilitatea.

Onuradunak kontabilitate-sistema bereizia edo kontabilitate-kode egokia izango du emandako diru-laguntzarekin lotutako transakzio guztietarako, betiere, hargatik eragotzi gabe kontabilitate-arau nazionalak.

Halaber, onuradunak «Gastuen frogagiri-zerrendan» aurkeztutako gastu eta ordainketen frogagiriak gorde beharko ditu, aplikatzekoak diren egiaztapenak eta kontrolak egin ahal izateko, justifikazioa aurkeztu eta hurrengo bost urteetan. Aipatutako epea igaro gabe jarduera bertan behera uztea edo desegitea erabakitzen duten erakundeek dagokien dokumentazioaren kopia bidali beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren organo eskudunari.

9.– Gastuen egozpena.

Loturiko kostuak diruz lagundutako jarduerari egotziko dizkio onuradunak, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera proportzionalki dagokion zenbatekoan eta, nolanahi ere, gastu horiek jarduera egin den aldiari dagozkion neurrian.

Gastuak komunak direnean prestakuntza-jarduera askotarako, modu proportzionalean egotziko zaizkio prestakuntza-jarduera bakoitzari, gastu horiek egozteko erabili diren irizpideak eta egin diren kalkuluak azalduz.

10.– Azpikontratazioa.

Lehentasunez langabeei zuzenduta dauden prestakuntza-jarduera hauek gauzatzeko, ezingo da hirugarrenik azpikontratatu. Horri begira, ordea, diru-laguntza jaso duen prestakuntza-jarduera emateko irakasleak kontratatzea ez da azpikontrataziotzat joko.

11.– Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ).

BEZa diruz lagundu daitekeen gastua izango da, baldin eta onuradunak benetan eta behin betiko jasaten badu. BEZ berreskuragarria ez da diruz lagunduko. Baldintza hori egiaztatzeko, azken ekitaldiari dagokion 390 eredua (BEZaren urteko aitorpenaren laburpena) aurkeztuko da, eta, eredu horretan, hala badagokio, Zerga Administrazioak aplikatuko duen kenkari-ehunekoa (prorrata) agertuko da.

BEZari lotuta ez dauden edo guztiz salbuetsita dauden erakundeek Zerga Administrazioak egindako ziurtagiri eguneratuaren bidez egiaztatuko dute egoera hori.

12.– Diruz lagundu ezin diren gastuak.

Diruz lagundu ezin diren gastutzat joko dira diru-laguntzaren xede den jarduerarekin zuzenean lotzen ez direnak eta beste hauek:

a) Onuradunak egiazki eta behin betiko ordaintzen ez dituen tributuak; halakotzat joko dira edozein modura jasanarazi, berreskuratu edo konpentsatu ahal izango direnak.

b) Mailegu edo kredituetatik eratorritako gastuak, baita kontu korronteak ireki eta mantentzetik eratorritakoak ere.

c) Interesak, errekarguak eta administrazio-zehapenak zein zehapen penalak.

d) Prozedura judizialen gastuak.

e) Banku-kontuetako interes zordunak.

f) Altzarien, ekipamenduen, ibilgailuen, azpiegituren, ondasun higiezinen eta lurren erosketak.

13.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

A) Prestakuntza-jardueraren zuzeneko kostuak:

1) Barneko eta kanpoko hezitzaileen ordainsariak.

1.1.– Atal honetako gastu gisa jotzen dira hezitzaileen ordainsariak, honako hauek barne: irakasleen soldatak, kontratu finkoa zein aldi baterakoa dutelarik ere, eta/edo kanpoko irakasleen zerbitzuak, prestakuntza-zentroaren edo -erakundearen konturako Gizarte Segurantzako gastuak hezitzaileak besteren kontura kontratatu dituenean, eta hezitzaileei egotz dakizkiekeen prestaketa-, irakaskuntza-, tutoretza- eta ebaluazio-kostuak.

Orobat gastutzat joko dira hezitzaileen joan-etorrietako eta ostatu hartzeko gastuak, baita haien mantenu-gastuak ere.

Atal honetan, prestakuntza-ekintzaren hasierako komunikazio-dokumentuan eta, hala badagokio, ondorengo aldaketetan sartutako ikasleei buruzko gastuak baino ez dira bilduko, gastu egozgarritzat hartuko diren prestaketako, tutoretzako eta ebaluazioko jarduerak barne direla, betiere azken horiek jakinarazten badira dokumentu horietan eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak esanbidez baimentzen baditu.

Atal honetan aurreikusitako barneko eta kanpoko hezitzaileen ordainsarien kontzeptu gisa egotz daitezkeen zuzeneko kostu guztien batura likidatu beharreko diru-laguntzaren guztizko kostuen ehuneko 35 izango da gutxienez, eta kostu horietatik prestakuntza-ekintza emateareKin loturiko prestaketako, tutoretzako eta beste jarduera batzuetako kostuek barneko eta kanpoko hezitzaileen ordainsarien guztizko kostuaren ehuneko 25eko muga izango dute gehienez. Ehuneko 35era iristen ez badira, bi zenbatekoen arteko aldea ezingo da zuzeneko, atxikitako edo bestelako gastu gisa egotzi, prestakuntzaren kalitatea ebaluatzeko eta kontrolatzeko kostuak salbu (artikulu honen 13.C.1 paragrafoan ezarrita daude).

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ohiko baimena eman ahal izango du ordutegi berean eta prestakuntza-ekintza berbererako hezitzaile bi edo gehiago aldi berean aritzeko, jarduerak giza talde berezietako edo ikasteko zailtasunak dituzten ikasle taldeei zuzentzen bazaizkie. Halakoetan, bi hezitzaile edo gehiagoren gastuak egotzi ahal izango dira aldi berean, baldin eta, arrazoi pedagogikoak direla medio, ikasleek prestakuntza-ekintza hobeto balia dezaten beharrezkotzat jotzen bada.

1.2.– Diruz lagundutako prestakuntza emango duten irakasleen arabera, bi egoera hauek bereiz daitezke:

a) Besteren konturako langile gisa kontratatutako hezitzaileak:

Ordainsaria % 100ean egozten bada, hiru agiri beharko dira egotzitako gastua justifikatzeko: nomina-agiria, horri dagokion ordainketa-ziurtagiria eta lanaren xedea (dena delako prestakuntza-ekintza gauzatzea) jasotzen duen lan-kontratua. Prestakuntza-ekintza egiteko soilik kontraturik egin ez bada, nomina osorik egoztea justifikatu beharko da.

Prestakuntza-ekintzari egotzi beharreko zenbatekoa prestatzaileak benetan emandako ordu kopuruarekiko proportzionala izango da, izan eskolak zuzenean emateko kontzeptupean izan prestakuntzako, tutoretzako edo ikasleak ebaluatzeko gastuen kontzeptupean. Egotzitako ordu-kopurua inola ere ez da izango lanaldi osoa baino handiagoa.

Prestakuntza-ekintzak emateagatiko ordainsaria ez bada bereizten nominan, eta nominaren barruan beste ordainketa-kontzeptu batzuk sartzen badira, lan egindako orduetatik prestakuntza-jardunean emandakoak aintzat hartzeko irizpidearen araberako justifikazio-kalkulua aurkeztu beharko da.

Egotzi beharreko ordu bakoitzeko kostu gordina formula honen arabera kalkulatuko da:

$$\frac{\text{Hezitzailearen soldata-masa}}{\text{Urteko ordu kop., hitzarmenaren arabera}} = \text{Hezitzailearen kostua orduko}$$

Egotzi beharreko kostua: emandako ordu kopurua x hezitzailearen kostua orduko.

Soldata-masaren barruan sartzen dira urteko ordainsari gordina (aparteko ordainsariak barne), gehi enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren kostua eta pentsio-planetarako ekarpenak.

Enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren atalean sartuko dira erakunde onuradunak ordaindu beharreko Gizarte Segurantzako gastuak, besteren kontura kontratatuko irakasleenak, hain zuzen ere.

Egotzitako kostua justifikatzeko, Gizarte Segurantzako kotizazio-agiriak (TC-1 eta TC-2 ereduak) eta haiek ordaindu izanaren egiaztagiriak aurkeztuko dira.

b) Prestakuntza-zentroko edo -erakundeko hezitzaile titularrak:

Kasu honetan diru-laguntzaren onuraduna pertsona fisiko bat edo nortasun juridikorik gabeko eta zerga-ordainketaren araubideko erakunde bat da, irakaskuntza-kostuak prestakuntza-ekintzari egozten dizkiona.

Egotzitako kostua fakturazio-betebeharrak arautzen dituen azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan jasotako eskakizunen arabera osatutako jatorrizko fakturaren bidez justifikatuko da; faktura horretan, langileari egindako atxikipena adierazi beharko da, baita ordainketa-frogagiria, Langile Autonomoen Araubide Bereziari ordaindu izanaren frogagiriak eta titularraren zinpeko aitorpena ere, informazio hau jasoko duena: irakatsitako prestakuntza eta egindako jarduerak, emandako ordu-kopurua, ordu bakoitzeko kostua eta jaso beharreko zenbatekoa.

c) Zentroaz kanpoko irakaskuntza-zerbitzua:

Zentroaz kanpoko irakaskuntza-zerbitzutzat jotzen da kasuan kasuko gaian espezializatutako erakunde batekin kontratua sinatzea, osorik edo partez prestakuntza-ekintza eman dezan. Kontratua beren konturako langile hezitzaileekin ere egin daiteke.

Zerbitzu hori fakturen bidez eta dagokion ordainketa-frogagiriaren bidez egiaztatuko da.

Nolanahi ere, fakturan informazio hau adierazi beharko da: prestakuntza-ekintzaren izena, egindako jarduera, emandako eskola-orduak, ordu bakoitzeko kostua eta guztizko zenbatekoa.

Zerbitzuak bere konturako langile gisa (lan-jarduera bat gauzatuz) ematen dituen pertsona batekin kontratatzen bada, egotzi beharreko kostua fakturaren bidez (langileak egindako atxikipena jasotzen duena) eta ordainketa-frogagiriaren bidez egiaztatuko da.

2) Instalazioak eta ekipamenduak, ikasgelak, tailerrak eta prestakuntzaren garapenean erabilitako gainerako espazioen amortizazio-gastuak.

Atal horretan honako hauek sartzen dira: instalazioak, ekipamendu eta tresnak, baita informatika-softwarea amortizatzeko gastuak ere, baldin eta haien bizitza erabilgarria urtebeteko ekitaldi batetik gorakoa bada. Atal honetan sartzen dira, orobat, ikasgelak, tailerrak eta prestakuntzaren garapenean erabilitako gainerako espazioen amortizazio-gastuak.

Amortizazioa oro har onartutako kontabilitate-arauei jarraikiz gauzatuko da; xede horretarako, sozietateen gaineko zergarako ezarritako zergen amortizazio-tauletara moldatutako amortizazio-metodo bat aplikatu ahalko da.

Gastu horiek likidatzeko unean egiaztatuko dira, gastu gisa sartutako elementu bakoitzarentzat, eta, horretarako, deialdi honen X. eranskin gisa jasotako «Amortizazio-taula» eredua aurkeztuko da.

Atal honetan adierazitako gehienezko zenbatekoak ezin izango du gainditu prestakuntza-ekintzarako hasieran onartutako diru-laguntzaren ehuneko 15.

Amortizazio-gastuek bat etorri beharko dute diru-laguntzaren onuradunaren kontabilitatean erregistratutako ondasun amortizagarriekin.

Ezin izango dira egotzi diru-laguntzekin edo laguntza publikoekin eskuratzen diren ondasunen amortizazio-gastuak.

Diruz lagundutako amortizazio-gastuak epe subentzionagarrira mugatuko dira.

3) Baliabide eta material didaktikoetarako eta ondasun kontsumigarrietarako gastuak.

Atal honetan sartzen dira ikasleen erabilera bakarrerako testuak zein baliabide didaktikoak eta prestakuntza-ekintzetan erabilitako lan-material suntsigarriak.

Aurrekoa egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan xedatutako eskakizunak betetzen dituzten fakturak, baita dagozkien ordainketa-frogagiriak ere.

b) Ikasleentzako erabilera bakarreko materialak jaso izanaren agiria, materialen xehetasunak eta ikaslearen sinadura dituela, baldin eta material horien kostua egozten bada.

Laneko material suntsigarriak badira, haien erabilera prestakuntzaren xedearekin garatutako jardueretara doitu beharko da.

4) Alokairu-gastuak eta finantza-errentamenduko gastuak.

Gastu horien barruan sartzen dira instalazioak, prestakuntza-jarduerarako makinak zein ekipamenduak alokatzeagatik edo leasing zein renting bidez hartzeagatik egotzi beharrekoak edo haietan jatorria dutenak.

Sartutako kontzeptu bakoitzari dagozkion fakturak eta alokairu-kontratuak aurkeztu beharko dira, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan xedatutako eskakizunen arabera, baita dagozkien ordainketa-frogagiriak ere.

Instalazioak edo ekipamenduak alokatzetik sortutako gastuak % 100ean egozten bazaizkio prestakuntza-ekintza bati, edo gastu horiek Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak prestakuntza-zentro edo -erakundeari emandako hainbat prestakuntza-ekintzaren artean banatzen badira, behar bezala egiaztatu beharko da instalazioak aipatutako prestakuntza-jarduerarako bakarrik erabiltzen direla.

Finantza-errentamenduen kasuan (leasing eta/edo renting), hileko kuotari eman ahalko zaio diru-laguntza, finantza-kostuak kenduta.

5) Parte-hartzaileen istripu-aseguruaren gastuak.

Kontzeptu honen barruan sartzen dira ikasle parte-hartzaileek istripuen aurrean dituzten aseguru-gastuak, aseguratutako ikasle guztien poliza edo primen zenbatekoak barne, prestakuntza-

ekintzetara joateagatik gerta litezkeen istripuen arriskuak direla medio eta horiekin loturiko erantzukizun zibilagatik, baita, hala badagokio, lanez kanpoko lanbide-praktiken fasean gerta litezkeenak ere, edota eskolak ematen diren tokirako joan-etorrietan; horiek guztiak prestakuntza-ekintzak dirauen aldira mugatuko dira zorrozki.

Aseguru-poliza prestakuntza-ekintza bakoitzerako bereziki sinatu ahal izango da, edo prestakuntza-ekintzen multzo baterako. Kasu batean zein bestean, polizan zehazki jaso beharko dira: hasiera- eta bukaera-data, prestakuntza-ekintzaren identifikazio-zenbakia, aseguratutako ikasle-kopurua eta kontratatutako estaldurak.

Kontratuen estaldurak prestakuntza-ekintza jakin bat gainditzen badu, behar bezala justifikatu beharko da egotzitako kostua nola zehaztu den, parte hartu duen ikasle kopurua aintzat hartuta.

Prestakuntza-ekintzen hasiera- edo amaiera-datetan izan daitezkeen aldaketek nahitaez ekarriko dute aseguru-polizako datak ere data berrietara moldatzea.

Gastu hori izenpetutako aseguru-polizaren bidez egiaztatuko, eta, han, jasota geratuko dira ordaindutako prima, behar bezala identifikatuta, eta dagokion ordainketa-frogagiria.

6) Publizitate-gastuak.

Atal honetan sartzen dira prestakuntza-ekintzen berri eman eta haiek sustatzetik eratorritako publizitate-gastuak, egindako jarduerak eta zerbitzuak komunikazio-sistema desberdinen bidez hedatzeko.

Gastu horiek fakturen eta dagozkien ordainketa-frogagirien bidez egiaztatuko dira; horrez gainera, egindako publizitatea ere aurkeztu beharko da, paperezko euskarrian edo euskarri digitalean, eta bertan Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren finantzaketa agertu beharko da. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren finantzaketa agertzen ez bada, gastu hori ezin izango da egotzi.

B) Prestakuntza-jarduerarekin lotutako kostuak.

1) Laguntza-langileen kostuak.

Kontzeptu honetan sartzen dira prestakuntza-ekintza prestatu, kudeatu eta egikaritzeko behar-beharrezkoak diren zuzendaritzako eta administrazioko langileei dagozkien gastuak eta diru-laguntzaren justifikazioa. Bereziki, ikasleak hautatzeko gastuak eta kontabilitateko eta auditoriako txostenak egitearen ondorioz sortuak sartzen dira. Horiez gainera, prestakuntza-zentro edo -erakundeek antolatutako lanez kanpoko lanbide-praktiken administrazio-kudeaketatik eratorritako langile-kostuak ere egotzi ahalko dira.

Gastua kanpoko eta barneko hezitzaileen ordainsarientzat zehaztutako irizpide eta jarraibideen arabera egiaztatu beharko da.

Gastuak prestakuntza-ekintzaka zatituta aurkeztu beharko dira.

Ikasleak aukeratzetik eratorritako gastuak behar bezala arrazoitu beharko dira.

2) Finantza-gastuak.

Atal honetan sartzen dira diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotutako finantza-gastuak, jarduera hori prestatu edo gauzatzeko nahitaezkoak direnak, betiere.

Halakorik balego, banku-bermea eratzean sortutako komisio, interes eta gainerako gastuak ere sartuko dira, eta berme hori eratzeko agiriekin eta horrekin lotutako gastuen agiriekin egiaztatuko dira.

Ezin izango dira diruz lagundu finantza-transakzioak, komisioak eta kanbio-galerak eta banku-kontuak ireki eta mantentzetik eratorritako gastuak.

Ez dira finantza-gastutzat joko, halaber, mailegu eta kredituetatik eratorritakoak.

3) Prestakuntza-ekintzari lotutako beste kostu batzuk.

Atal honetan honako hauek sartzen dira: argia, ura, berogailuak, mezularitza, posta, garbiketa, zaintza eta prestakuntza-ekintza egikaritzearekin erlazionatuta dauden eta lehenago aipatu ez diren beste kostu batzuk.

Aipatutakoez gainera, telefono- eta komunikazio-gastuak ere sartuko dira (faxa eta Interneteko konexioa), baita prestakuntzarako instalazio eta ekipamenduen mantentze-lanetatik eratorritakoak ere.

Kostu egozgarri gisa sartuko dira, orobat, irakaskuntza-materialak argitaratu zein inprimatzekoak eta material horiek itzultzekoak.

Gastu horiek dagokien fakturaren eta ordainketa-frogagiriaren bidez egiaztatuko dira.

Erakunde onuradunak gastuak egozteko irizpideak eta egindako kalkuluak aurkeztu beharko ditu, gastu horiek egiaztatzeko dokumentazioarekin batera.

4) Prestakuntza-ekintzari lotutako kostuen muga.

Prestakuntza-ekintzari lotutako kostuen baturak ezin izango du gainditu prestakuntza-ekintzarako hasieran emandako diru-laguntzaren ehuneko 15.

C) Diruz lagundu daitezkeen beste kostu batzuk:

1) Prestakuntzaren kalitatea ebaluatzeko eta kontrolatzeko izandako kostuak.

Zehazki, prestakuntzaren kalitatea ebaluatu eta kontrolatzeko ekintzak eragindako barneko eta kanpoko langile-kostuak sartzen dira atal honetan.

Onartutako diru-laguntzaren % 5 bideratu ahalko dute onuradunek, gehienez ere, eskaintzen duten prestakuntzaren kalitatea ebaluatu eta kontrolatzeko jardueretara.

Prestakuntzaren ebaluazio- eta kontrol-ekintza gisa hartu ahal izango dira irakasleei zein ikasleei zuzendutako inkestak, hobekuntza-eremuen identifikazioa eta hobekuntza-planak egitea.

Egindako jarduerak Lanbideri jakinarazi beharko zaizkio egiten diren unean, dokumentazioaren kopia eta lorturiko emaitzak helaraziz txosten baten bidez; txosten horretan jasoko dira, gutxienez, ikastaldia emateko baldintzen egiaztapena eta ebaluazio- eta kontrol-emaitzak direla-eta egin diren hobekuntza-jardunak.

Irakaskuntzaren kalitate-kontroleko eginkizunak irakasle ez diren langileek egin ahal izango dituzte.

Kalitatearen ebaluazio eta kontroleko gastua barneko eta kanpoko hezitzaileen ordainsarientzat zehaztutako irizpide eta jarraibideen arabera egiaztatu beharko da.

Eremu horretan egindako edozein jarduera Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariei aurkeztu beharko zaie.

2) Auditorearen txostenetik eratorritako gastuak.

Auditore-txostena egitetik eratorritako barneko eta kanpoko gastuak sartzen dira.

Auditore-txostenaren kostuak prestakuntza-ekintza gauzatzeko hasieran emandako diru-laguntzaren ehuneko 3ra iritsiko dira, gehienez ere.

Auditoriaren kostua dagokion fakturaren eta ordainketa-frogagiriaren bidez egiaztatuko da. Gastu horiek prestakuntza-ekintzen arabera behar bezala xehatuta aurkeztu beharko dira, eta parte-hartzaileen kopurua kontuan hartuta egotziko dira.

14.– Aitortutako gastuen ordainketa-justifikazioa.

Prestakuntza-jardueren onuradunak aitortutako gastuak ordaindu izana egiaztatu beharko du; egiaztapen hori ordainketa-moduaren araberakoa izango da.

Inola ere ez dira onartuko langileei eskudirutan egindako ordainketak, ez zuzeneko kostuetan (irakaskuntza eta prestakuntza), ez eta lotutako kostuetan ere (administrazioa, garbiketa eta bestelako zerbitzuak), mantenu- eta garraio-gastuetarako izan ezik.

Eskudirutan egindako ordainketak egiaztatzeko, hornitzaileak sinatu eta zigilatutako ordainagiria erabiliko da; ordainagiri horretan, behar bezain argi agertuko dira zenbatekoa jasotzen duen enpresa eta ordaintzen diren gastu-dokumentuen zenbakia zein jaulkitze-data. Ordainketa gastua jasotzen duen dokumentu berean jasotako hartze-agiriaren bidez egiaztatzen bada, agiri horretan hornitzailearen sinadura eta zigilua eta ordaindu izanaren zigilua agertu beharko dira.

Txeke izendunaren bidezko ordainketa, berriz, kargua egiaztatzen duen banku-ziurtagiriarekin justifikatuko da.

Zor-agiri, kanbio-letra edo antzekoen bidezko ordainketak dagokion agiriaren kopiarekin eta kargua egiaztatzen duen banku-ziurtagiriarekin kreditatuko dira.

Banku-transferentzia edo bankuko diru-sarrera bidezko ordainketak transferentzia-aginduaren bidez egiaztatuko dira. Agiri horretan argi adierazi beharko dira agindu-emailearen eta onuradunaren izenak; gainera, banku-erakundearen konpentsazio-zigilua agertu beharko da. Aurreko hori ezean , kargua egiaztatzen duen banku-ziurtagiriak balioko du egiaztagiri gisa.

Helbideratze bidezko ordainketa egiaztatzeko, ordaintzen den gastuaren dokumentuek kontuan eragindako zorpetze-egiaztagiria erabiliko da.

Nomina eta fakturen ordainketa-frogagiriak zenbateko osoarentzat egiaztatu behar dira, alde batera utzita zenbateko hori prestakuntza-jarduerari osotasunean ala zati batean egozten zaion.

15.– Ez-betetzeak eta egiaztapen osatu gabeak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ikusten badu onuradunak aurkeztutako egiaztapenean konpon daitezkeen akatsak daudela, horren berri emango dio onuradunari, eta hamar eguneko epea emango dio akatsok zuzentzeko.

Emandako epea igarotakoan eskatutako konponketak egin ez baditu, 21. artikuluan aurreikusitako itzultze-prozedura (osoa edo partziala) abiarazi ahalko da.

18. artikulua.– Jarraipena eta kontrola: Zentro, entitate eta erakunde onuradunen betebeharrak.

Onuradunaren betebehar izango dira, deialdi honen artikuluetan aurreikusitakoez gain, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan jasotakoak.

Diru-laguntzen onuradunek frogaketa- eta kontrol-jarduerak igaro beharko dituzte, zehazki Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarenak, Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoarenak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarenak, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiarenak ere; hala, lokal eta instalazioetarako sarbidea errazteaz gainera, prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileekin eta elkarrizketatzea egoki irizten dioten beste edozein pertsonarekin harremanetan jartzen utzi beharko die.

Kontrol-jarduera horiek onartzeko betebehar orokor honen esparruan, onuradunak honako hau bete beharko du:

• Finantzatutako ekimenaren egikaritzeari edo bideragarritasunari buruzko edozein informazio ematea eta eskatzen zaion jarraipen-dokumentazioa bete eta bidaltzea.

• Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea beste erakunde batzuetatik eratorritako diru-laguntzak edo laguntzak (deialdi honek diruz lagundutako ekintza guztiei edo batzuei eragiten dietenak) eskatu direla edo eskuratu direla.

• Diruz lagundutako jardueraren xedeari edo izaerari nabarmen eragin diezaiokeen edozein gertaera jakinaraztea, baita diru-laguntza emateko aintzat hartu izan den inguruabarren baten aldaketa ere.

Prestakuntzaren garapenean jardunaren jarraipena egiteaz gainera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak auditoria- eta ikuskapen-plan bat ezarri ahal izango du, alde batetik, deialdian xedatutako eskakizunak betetzen direla ziurtatzeko eta, beste alde batetik, diruz lagundutako jarduerak nolako baldintzetan gauzatu diren egiaztatzeko.

19. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatu den aldaketa orok emandako diru-laguntza aldatzea ekarri ahal izango du, deialdi honetan diru-laguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen badira, betiere. Baldintzen aldaketa horren ondorioz, diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

20. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat etortzea.

Deialdi honen xede diren laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein diru-laguntza edo laguntzarekin; nolanahi ere, finantziazio-iturri desberdinetatik jasotako laguntzen zenbateko osoak ezin izango du gainditu diruz lagundutako prestakuntza-ekintzen benetako kostua. Kostu hori gaindituz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko da.

21. artikulua.– Diru-laguntzak itzultzea.

1.– Ondoren zehazten diren kasuetan, ezin izango da diru-laguntzaren ordainketa galdatu, eta aurretik zerbait ordaindu bazaie, bidezkoa izango da, batetik, jasotako zenbatekoak itzularaztea, eta, bestetik, diru-laguntza ordaindu zenetik aurrera sortuko ziren legezko korrituak galdatzea. Hona hemen kasuok:

● Jarduera egin izana eta laguntza emateko edo baliatzeko baldintza eta betekizunak bete izana justifikatu beharra ez betetzea.

● Behar diren baldintzak bete izan gabe diru-laguntza eskuratzea.

● Jarraipen- eta kontrol-jarduerei uko egitea edo haiek oztopatzea.

● Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko baldintzei buruz datu faltsuak ematea, errealitatearekin bat ez datozenak.

● Deialdi honetan zehaztutako beste edozein betebehar, baldintza edo eskakizun ez betetzea.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntzaren onuradunari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Horretaz gain, alegazioak edo egokitzat jotzen dituen egiaztagiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela jakinaraziko dio.

3.– Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan halakorik aurkeztu ez badu edo ez badira onartu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

4.– Ebazpenak arauren bat bete gabe utzi dela iritziz gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da eta, hala badagokio, ebazpena jakinarazten denetik aurrera bi hilabeteko epean gehienez ere dagozkion diru-kopuruak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuli beharra adieraziko dio onuradunari. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

Borondatezko aldian ez badira zenbateko horiek itzultzen, haiek premiamendu bidez berreskuratzeko izapideak hasiko dira.

22. artikulua.– Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua.

Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak «Enplegu eta Prestakuntza Zentroak» izeneko fitxategian sartuko ditu deialdi honetan araututako laguntza-eskabideak betez lortutako datu pertsonalak. Fitxategi hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 10eko Aginduaren bidez araututa dago.

Halaber, pertsona interesdunek datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubidea izango dute, legeak onartzen duen eran; horretarako, hori adierazten duen idazki bat igorri beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari (Jose Atxotegi kalea, 1 – Vitoria-Gasteiz).

I. ERANSKINA

2013KO DEIALDIKO PRESTAKUNTZA-ESKAINTZA (ARABA)

									Eremu geografikoak														
LH	Kodea	Espezialitatearen izena	Gaitasun-atala	Orduak	Prestakuntza osagarria	P.O. orduak	Orduak, guztira	Ikasleak	Bakarra											Ikastaroak, guztira	Ikasleak, guztira	Modulu ekonomikoa	Ikastaroen zenbatekoa
ADF	AFDA0211	Gorputz-, kirol- eta jolas-ekintzen animazioa		470			470	15												1	15	11	77.550,00 €
ADG	ADGD0108	Auditoriarako administrazio-kudeaketa eta kontabilitateko kudeaketa	UC231,232,233	550			550	15												1	15	11	90.750,00 €
ADG	ADGD0108	Auditoriarako administrazio-kudeaketa eta kontabilitateko kudeaketa	UC233	190			190	15												4	60	11	125.400,00 €
ADG	ADGD0108	Auditoriarako administrazio-kudeaketa eta kontabilitateko kudeaketa	UC231	240			240	15												2	30	11	79.200,00 €
ADG	ADGD0110	Zerga-prozeduren kudeaketarako laguntza	UC1783,1784, 1785,1786,1787	510			510	15												1	15	11	84.150,00 €
ADG	ADGD0208	Giza baliabideen kudeaketa integratua	UC233,237,238, 987	670			670	15												1	15	11	110.550,00 €
ADG	ADGD0208	Giza baliabideen kudeaketa integratua	UC237, UC987_3	330			330	15												2	30	11	108.900,00 €
ADG	ADGD0210	Mikroenpresen sorkuntza eta kudeaketa		480			480	15												1	15	11	79.200,00 €
ADG	ADGD0308	Administrazio-kudeaketako jarduerak		800			800	15												2	30	11	264.000,00 €
ADG	ADGG0208	Administrazio-jarduerak bezeroarekiko harremanetan	UC233,975,976, 977, 978	590			590	15												1	15	8	70.800,00 €
ADG	ADGN0108	Enpresen finantziazioa	UC233,498,499, 500	550			550	15												1	15	11	90.750,00 €
ADG	ADGN0109	Enpresen finantziazioa	UC498,499,500	360			360	15												1	15	11	59.400,00 €
ADG	ARGG0110	Produktu grafikoen diseinua		560			560	15												1	15	11	92.400,00 €
COM	COML0110	Biltegiko jarduera osagarriak		170			170	15												3	45	8	61.200,00 €
COM	COML0110	Biltegiko jarduera osagarriak	UC0432_1	50	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	60	15												2	30	8	14.400,00 €
COM	COMT0211	Merkataritzako jarduera osagarriak		230			230	15												2	30	8	55.200,00 €

									Eremu geografikoak													
LH	Kodea	Espezialitatearen izena	Gaitasun-atala	Orduak	Prestakuntza osagarria	P.O. orduak	Orduak, guztira	Ikasleak	Bakarra											Ikastaroak, guztira	Ikasleak, guztira	Modulu ekonomikoa	Ikastaroen zenbatekoa
COM	COMV0108	Salmenta-jarduerak		510			510	15												1	15	8	61.200,00 €
COM	COMF10	Kutxazaina		140			140	15												2	30	8	33.600,00 €
ELE	ELEE0109	Behe-tentsioko instalazio elektrikoen muntaketa eta mantentzea		840			840	15												1	15	11	138.600,00 €
ELE	ELEE0109	Behe-tentsioko instalazio elektrikoen muntaketa eta mantentzea	UC820,821	310			310	15												2	30	11	102.300,00 €
ELE	ELEE0110	Eraikinetarako xede bereziko instalazio elektrikoei buruzko proiektuak garatzea		440			440	15												1	15	11	72.600,00 €
ELE	ELES0208	Eraikinetan instalazio elektroteknikoak eta telekomunikazio-instalazioak muntatzeko eragiketa osagarriak		300			300	15												2	30	8	72.000,00 €
FME	FMEC0110	Elektrodo estalizko eta TIG bidezko soldadura	UC0099	400	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	410	15												1	15	8	49.200,00 €
FME	FMEC0110	Elektrodo estalizko eta TIG bidezko soldadura	UC0100	370	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	380	15												2	30	8	91.200,00 €
FME	FMEC0210	Oxigas soldadura eta MIG/MAG soldadura		560	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	570	15												1	15	8	68.400,00 €
FME	FMEM60	CNC duten makina-erreminten prestatzaile programatzailea	UC9160	200	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	210	15												1	15	11	34.650,00 €
FME	FMEM60	CNC duten makina-erreminten prestatzaile programatzailea	UC9161	250	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	260	15												1	15	11	42.900,00 €
FME	FMEE0308	Fabrikazio mekanikoko produktuen diseinua		600			600	15												1	15	11	99.000,00 €
FME	FMEE0308	Fabrikazio mekanikoko produktuen diseinua	UC0106_3	210			210	15												1	15	11	34.650,00 €
FME	FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa		540			540	15												2	30	8	129.600,00 €
HOT	HOTR0108	Oinarrizko sukaldaritza-lanak		270	Elikagai-manipulatzailea FCOM01	10	280	15												2	30	8	67.200,00 €
HOT	HOTR0208	Jatetxeko eta tabernako oinarrizko lanak		210	Elikagai-manipulatzailea FCOM01	10	220	15												1	15	8	26.400,00 €

									Eremu geografikoak														
LH	Kodea	Espezialitatearen izena	Gaitasun-atala	Orduak	Prestakuntza osagarria	P.O. orduak	Orduak, guztira	Ikasleak	Bakarra											Ikastaroak, guztira	Ikasleak, guztira	Modulu ekonomikoa	Ikastaroen zenbatekoa
IFC	IFCT0609	Sistema informatikoen programatzailea		510			510	15												1	15	11	84.150,00 €
IMA	IMAN20	Mantentze-lanetako elektromekanikaria	UC291	675	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	685	15												1	15	8	82.200,00 €
IMP	IMPE0108	Estetikako zerbitzu osagarriak		240			240	15												2	30	8	57.600,00 €
IMP	IMPE0109	Estetikako zerbitzu osagarriak	UC0344	60			60	15												1	15	8	7.200,00 €
IMP	IMPQ0108	Ile-apainketako zerbitzu osagarriak		210			210	15												1	15	8	25.200,00 €
IMP	IMPQ0208	Ile-apainketa		590			590	15												1	15	11	97.350,00 €
MAM	MAMR0108	Altzarien eta arotzeriako elementuen muntaketa		380	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	390	15												1	15	8	46.800,00 €
MAM	MAMR0408	Altzarien instalazioa		470	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	480	15												1	15	11	79.200,00 €
SEA	SEAG0209	Eremu irekietako eta industria-instalazioetako garbiketa		130	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	140	15												2	30	8	33.600,00 €
SSC	SSCB0209	Haur eta gazteen astialdirako hezkuntza-jardueren dinamizazioa		150			150	15												2	30	8	36.000,00 €
SSC	SSCI0109	Etxeko enplegua		120			120	15												2	30	8	28.800,00 €
SSC	SSCM0108	Eraikin eta lokaletako zoru eta altzarien garbiketa		150			150	15												2	30	8	36.000,00 €
SSC	SSCS0208	Mendekoentzako arreta soziosanitarioa erakunde sozialetan		370			370	15												2	30	8	88.800,00 €
SSC	SSCS0108	Pertsonen arreta soziosanitarioa etxean		480			480	15												2	30	8	115.200,00 €
TCP	TCPF0109	Ehunezko eta larruzko jantzien eta gaien konponketak eta egokitzapenak		310			310	15												1	15	8	37.200,00 €
TMV	TMVG0409	Motorra eta motorraren sistema osagarrien mantentze-lanak		440			440	15												1	15	8	52.800,00 €
GUZTIZKOA																				**71**	**1.065**		**3.495.450,00 €**

2013KO DEIALDIKO PRESTAKUNTZA-ESKAINTZA (BIZKAIA)

									Eremu geografikoak													
LH	Kodea	Espezialitatearen izena	Gaitasun-atala	Orduak	Prestakuntza osagarria	P.O. orduak	Orduak, guztira	Ikasleak	1	2	3	4	5	6						Ikastaroak, guztira	Ikasleak, guztira	Modulu ekonomikoa	Ikastaroen zenbatekoa
ADG	ADGD0108_1	Auditoriarako administrazio-kudeaketa eta kontabilitateko kudeaketa	UC231, 232	360			360	15	1	1										2	30	11	118.800,00 €
ADG	ADGD0108_2	Auditoriarako administrazio-kudeaketa eta kontabilitateko kudeaketa	UC232,233	310			310	15	1	1										2	30	11	102.300,00 €
ADG	ADGD0108_3	Auditoriarako administrazio-kudeaketa eta kontabilitateko kudeaketa	UC231,233	430			430	15	1	1										2	30	11	141.900,00 €
ADG	ADGD0208_1	Giza baliabideen kudeaketa integratua	UC237, 238, 987	480			480	15		1		1								2	30	11	158.400,00 €
ADG	ADGD0208_2	Giza baliabideen kudeaketa integratua	UC233, 987	310			310	15	1	1		1								3	45	11	153.450,00 €
ADG	ADGD0208_3	Giza baliabideen kudeaketa integratua	UC237, 238	360			360	15	1	1		1								3	45	11	178.200,00 €
ADG	ADGD0208_4	Giza baliabideen kudeaketa integratua	UC233, 238, 987	460			460	15	1	1		1								3	45	11	227.700,00 €
ADG	ADGD0210	Mikroenpresen sorkuntza eta kudeaketa	UC1788, 1789, 1790, 1791, 1792	480			480	15	1											1	15	11	79.200,00 €
ADG	ADGD0308_1	Administrazio-kudeaketako jarduerak	UC976, 981	280			280	15	2	1	1									4	60	8	134.400,00 €
ADG	ADGD0308_2	Administrazio-kudeaketako jarduerak	UC233, 973	280			280	15		1										1	15	8	33.600,00 €
ADG	ADGD0308_3	Administrazio-kudeaketako jarduerak	UC233	190			190	15	2	1	1									4	60	8	91.200,00 €
ADG	ADGG0208	Administrazio-jarduerak bezeroarekiko harremanetan	UC233, 976	350			350	15			1									1	15	8	42.000,00 €
ADG	ADGG0408	Zerbitzu administratibo eta orokorretako jarduera osagarriak	UC969,970, 971	390			390	15	1	1	1	1								4	60	8	187.200,00 €
ADG	ADGG0508	Datuak eta dokumentuak grabatzeko eta tratatzeko eragiketak	UC971, 973, 974	360			360	15	1	1		1	1							4	60	8	172.800,00 €
AFD	AFDA0210	Egokitze fisikoa erabilera anitzeko entrenamendu-gelan	UC272, 273, 274, 275	470			470	15	1											1	15	11	77.550,00 €
AFD	AFDP0109	Sorospena ur-instalazioetan	UC269, 270, 271, 272	290			290	15	1			1								2	30	11	95.700,00 €

									Eremu geografikoak														
LH	Kodea	Espezialitatearen izena	Gaitasun-atala	Orduak	Prestakuntza osagarria	P.O. orduak	Orduak, guztira	Ikasleak	1	2	3	4	5	6							Ikastaroak, guztira	Ikasleak, guztira	Modulu ekonomikoa	Ikastaroen zenbatekoa
AFD	AFDP0209	Sorospena ur-eremu naturaletan	UC269, 272, 1082, 1083	340			340	15	1												1	15	11	56.100,00 €
AGA	AGAJ0108	Loradendako jarduera osagarriak	UC1112, 1113, 1114, 1115	310			310	15	1												1	15	8	37.200,00 €
AGA	AGAO0208	Lorategien eta berdeguneen instalazioa eta mantentzea	UC525, 531, 532	390			390	15			1										1	15	11	64.350,00 €
ARG	ARGG0110_1	Produktu grafikoen diseinua	UC696, 697	300			300	15		1											1	15	11	49.500,00 €
ARG	ARGG0110_2	Produktu grafikoen diseinua	UC698, 699	260			260	15		1											1	15	11	42.900,00 €
COM	COMV0108_1	Salmenta-jarduerak	UC239, 1002	250			250	15	2												2	30	8	60.000,00 €
COM	COMV0108_2	Salmenta-jarduerak	UC240, 241	260			260	15	1												1	15	8	31.200,00 €
COM	COMF10	Kutxazaina	UC9389, 9390	140			140	15	1												1	15	8	16.800,00 €
COM	COML0110	Biltegiko jarduera osagarriak	UC432,1325, 1326	170			170	15	1	1	1	1									4	60	8	81.600,00 €
COM	COML0209	Garraioaren eta banaketaren antolamendua	UC1005,100 6,1012, 1013	340			340	15	1												1	15	11	56.100,00 €
COM	COMT0211	Merkataritzako jarduera osagarriak	UC1326, 1327, 1328, 1329	230			230	15	1	1	1	1									4	60	8	110.400,00 €
COM	COMT0411	Salmenten merkataritza-kudeaketa	UC503, 1000, 1001	280			280	15	1												1	15	11	46.200,00 €
ELE	ELEE0108	Sare elektrikoak muntatzeko eragiketa osagarriak(3)	UC818, 819	140	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	150	15	1	2											3	45	8	54.000,00 €
ELE	ELEE0109_1	Behe-tentsioko instalazio elektrikoen muntaketa eta mantentzea(3)	UC823, 824	200	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	210	15	1	1		1									3	45	11	103.950,00 €
ELE	ELEE0109_2	Behe-tentsioko instalazio elektrikoen muntaketa eta mantentzea(3)	UC820, 821	310	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	320	15	1	2											3	45	11	158.400,00 €
ELE	ELEE0310_1	Eraikinen inguruneko instalazio elektrikoak muntatzeko eta mantentzeko lanen kudeaketa eta gainbegiratzea(3)	UC1180, 1181	310	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	320	15		1											1	15	11	52.800,00 €

									Eremu geografikoak													
LH	Kodea	Espezialitatearen izena	Gaitasun-atala	Orduak	Prestakuntza osagarria	P.O. orduak	Orduak, guztira	Ikasleak	1	2	3	4	5	6							Ikastaroak, guztira	Ikasleak, guztira	Modulu ekonomikoa	Ikastaroen zenbatekoa
ELE	ELEE0310_2	Eraikinen inguruneko instalazio elektrikoak muntatzeko eta mantentzeko lanen kudeaketa eta gainbegiratzea(3)	UC1182, 1183	310	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	320	15		1											1	15	11	52.800,00 €
ELE	ELEQ0111	Ekipo elektriko eta elektronikoak muntatzeko eta mantentzeko lan osagarriak(3)	UC1559,1560, 1561	310	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	320	15	1	2											3	45	8	115.200,00 €
ELE	ELES0108	Komunikazio-azpiegituren muntaketa eta mantentzea(3)	UC120,121	330	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	340	15	1												1	15	11	56.100,00 €
ELE	ELES0208	Eraikinetan instalazio elektroteknikoak eta telekomunikazio-instalazioak muntatzeko eragiketa osagarriak(3)	UC816, 817	300	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	310	15	1	1		1									3	45	8	111.600,00 €
ELE	ELES0209	Datuen tokiko sareetako telefonia- eta azpiegitura-sistemen muntaketa eta mantentzea(3)	UC599, 600	340	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	350	15	1	1											2	30	11	115.500,00 €
ELE	ELET10	Mantentzeko elektronikoa (3)	UC9280, 9281	250	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	260	15	1												1	15	8	31.200,00 €
ENA	ENAE0108	Eguzki-instalazio fotovoltaikoen muntaketa eta mantentzea	UC835,836, 837	420			420	15	1	1											2	30	11	138.600,00 €
ENA	ENAE0208	Eguzki-instalazio termikoen muntaketa eta mantentzea	UC601,602, 603,604,605	420			420	15	1	1											2	30	11	138.600,00 €
EOC	EOCI10_1	Iturgina(3)	UC9133, 9135	460	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	470	15	1												1	15	8	56.400,00 €
EOC	EOCI10_2	Iturgina(3)	UC9134, 9136	270	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	280	15	1												1	15	8	33.600,00 €
EOC	EOCM10_1	Hondeamakinen eragilea(3)	MF9162	266	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	276	15		1		1									2	30	8	66.240,00 €
EOC	EOCM10_2	Hondeamakinen eragilea(3)	MF9163	266	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	276	15		1		1									2	30	8	66.240,00 €

									Eremu geografikoak														
LH	Kodea	Espezialitatearen izena	Gaitasun-atala	Orduak	Prestakuntza osagarria	P.O. orduak	Orduak, guztira	Ikasleak	1	2	3	4	5	6						Ikastaroak, guztira	Ikasleak, guztira	Modulu ekonomikoa	Ikastaroen zenbatekoa
FME	FMEC0108	Industria-tutueriako instalazioen fabrikazioa eta muntaketa(3)	UC1142,1143, 1144	450	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	460	15	1		1		1							3	45	11	227.700,00 €
FME	FMEC0110_1	Elektrodo estalizko eta TIG bidezko soldadura(3)	UC99	400	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	410	15	2	1	1	1	1	1						7	105	8	344.400,00 €
FME	FMEC0110_2	Elektrodo estalizko eta TIG bidezko soldadura(3)	UC100	370	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	380	15	1	1	2	1	1	1						7	105	8	319.200,00 €
FME	FMEC0210_1	Oxigas soldadura eta MIG/MAG soldadura(3)	UC98	200	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	210	15	1	1	1			1						4	60	8	100.800,00 €
FME	FMEC0210_2	Oxigas soldadura eta MIG/MAG soldadura(3)	UC101	430	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	440	15	1	1	1			1						4	60	8	211.200,00 €
FME	FMEE0108	Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak(3)	UC87, 88	400	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	410	15		1										1	15	8	49.200,00 €
FME	FMEH0109_1	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa(3)	UC89, 91	310	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	320	15	1	1		1								3	45	8	115.200,00 €
FME	FMEH0109_2	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa(3)	UC90	260	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	270	15	1	1		1								3	45	8	97.200,00 €
FME	FMEH0409	Urradura, elektrohigadura eta prozedura berezien bidezko mekanizazioa(3)	UC92, 93, 94	540	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	550	15		1										1	15	8	66.000,00 €
FME	FMEL10	Industria-galdaragilea(3)	UC9371, UC9373, MF9229	520	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	530	15			1		1							2	30	8	127.200,00 €
FME	FMEM60_1	CNC duten makina-erreminten prestatzaile programatzailea(3)	UC9160	200	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	210	15	1	1		1								3	45	11	103.950,00 €
FME	FMEM60_2	CNC duten makina-erreminten prestatzaile programatzailea(3)	UC9161	250	Arriskuen prebentzioa FCOS01	10	260	15	1	1		1								3	45	11	128.700,00 €
